

Biztanleria



7

Ekonomia eta enpresa



2

Lan merkatua



3

Merkataritza



4

Turismoa



5

Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea



6

kultura eta kirola



7

Etxebizitza



8

Garraioa eta ingurumena



9

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Biztanleria

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleen mugimenduak
Biztanleak barruti eta auzoetan

Atzerriko biztanleak

Herritasunaren arabera
Barrutien arabera

Biztanleria: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta
Gizarte babesa
Eskolatzeko maila
Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila



3

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Demografía: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

2017ko urtarrilaren lehenean Bilbok 345.474 pertsonako biztanleria dauka, 168 biztanle gutxiago soilik urte bat lehenago Udal Erroldan erregistratutakoan aldean (% 0,05 gutxiago). Biztanleria jaitsiera xume hau gehitu egin zaio 2000. urtetik Bilbon jasandako biztanleria galerari. 10.014 pertsonara heldu da jadanik murrizketa, ehuneko terminoetan % 2,8ko jaitsiera.

Bilbok 2017an 345.474 pertsonako biztanleria dauka.

Bilbok biltzen du Metropoli Areako biztanleria osoaren % 38,4a. Zonalde hau osatzen dute 35 udalerrik eta 892.797 pertsonak. Erreferentzia gisa Bizkaia hartuta, Bilbok hartzen du lurraldeko biztanleria osatzen duten 1.139.426 pertsonen % 30a.


Bilboko hiribilduak 40,6 km²-ko azalera dauka eta 8.509 biztanle ditu km²-ko. Hala, biztanleria dentsitate altuenetakoa dauka Estatuko probintzia hiriburuen artean. Euskal udalerrien artean, Bilbok bigarren postua dauka dentsitate altueneko udalerrien rankingean. Portugaletek soilik gainditzen du (14.521,32 bizt/km²). Erreferentzia gisa, Biztanleen Udal Estatistikaren arabera (Eustat, 2017), Bizkaian batez besteko biztanleria dentsitatea 514,45 bizt/km² da, eta 300,74 bizt/km² EAEn.

Azken urteetan, eta lehenago identifikatutako biztanleria jaitsierak eman arren, Bilbon gizon eta emakumeen arteko proportzioa nahiko egonkorra izan da, beti emakumeen presentzia handiagoa mantenduz gizonezkoena baino. Hala, 2017. urteko proportzioan % 53 emakumezkoak dira, gizonezkoen % 47aren aldean. Hau da, ehun gizoneko 112 emakume daude erregistratuta udal erroldan.

Biztanleen % 23,8ak 65 urte edo gehiago dauka eta % 4,6ak 85 baino gehiago.

Bilboko biztanleriaren batez besteko adina 46 urtekoa da (44 urte gizonezkoentzako eta 48 emakumezkoentzako). Biztanle gazteenak -15 urte baino gazteagoak-biztanleria osoaren % 12,1a dira eta 45 urtetik beherakoena guztien % 46,0a da. 45 eta 64 urte artean dauden biztanleak % 30,2a dira eta 65 urte eta gehiagokoek hiriko biztanleria osoaren aldean daukaten pisua % 23,8koa da.

Bilboko biztanleriaren bilakaera, 1960-2017



Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera

	2016	2017	% 2017/16
Biztanleria	345.642	345.474	-0,05
Emakumezkoak	182.697	182.782	0,05
Gizonezkoak	162.945	162.692	-0,16

Iturria: Udal Errolda.



4

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Demografía: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Adin tarteen arabera, 0 eta 44 urte arteko biztanleak % 1,1 jaitsi dira, 1.832 pertsona galdu dituzte guztira aurreko urtearen aldean, eta hauetako 1.728k 30 eta 44 urte artean dauzkate. 45 eta 64 urte arteko multzoa % 1,15 hazi da azken urtean (1.026 pertsona gehiago) eta 85 urte eta gehiagokoek ere hazkunde nabarmena erakutsi dute, % 4,47koa (642 gehiago). 65 eta 84 urte artekoa % 0,3 murriztu da eta 309 pertsona galdu ditu guztira.

Azken urteetan zahartze indizea igo egin da etengabe udalerrian, eta 2017an heldu da kopuru altuenera, % 23,8ra. 2007. urtean 85 urtetik gorako pertsonak % 12,2a ziren soilik 65 urte eta gehiagokoekin barruan, eta biztanleria osoaren % 2,61a. 2017an 65 urte eta gehiagokoekin % 19,3a dira jadanik (aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gehiago) eta biztanleria osoaren % 4,6a.

Mendekotasun indizea ere hazi egin da 2017an, kasu honetan % 55,99a arte (2016an baino 0,30 pp gehiago). Biztanleriaren zahartzea da hazkunde honen arrazoi nagusia, eta erakusten du ze ahalegin eskatzen dien adin produktiboan dauden biztanleei (15 eta 64 urte artekoak) ekonomikoki mendekoak den biztanleria mantentzeak (haurrak eta agureak).


Biztanleria, adinaren arabera

	2016	2017	% 2017/16
Biztanleria	345.642	345.474	-0,05
0-14 urte	41.880	41.768	-0,27
15-29 urte	45.404	45.412	0,02
30-44 urte	73.435	71.707	-2,35
45-64 urte	103.162	104.350	1,15
65-84 urte	66.563	66.360	-0,30
85 urte eta gehiago	15.198	15.877	4,47
% 0-14 urte arteko biztanleria/biztanleria osoa	12,12	12,09	-0,03 pp
% 85 urte eta gehiagoko biztanleria/biztanleria osoa	4,40	4,60	0,20 pp
Mendekotasun Indizea ²	55,69	55,99	0,30 pp

* Mendekotasun Indizea: Biztanle ez-aktiboek (15 urtetik beherakoek eta 64tik gorakoek) duten pisua potentzialki aktiboa den biztanleriarekiko (15-64 urte bitartean). Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria, adinaren arabera. Bilbo 2017

EMAKUMEAK GIZONAK



Iturria: Udal Errolda.



5

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Demografía: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleen mugimenduak

2017an 17.593 alta eta 17.775 baja zenbatu dira guztira, Bilboko udal erroldak erakusten dituen biztanleen mugimenduetan.

Bilbon migrazio saldoa positiboa izan da.

Erroldan erregistratutako altetatik, % 60a udalerrri aldaketagatik erroldatutakoak dira (10.606), % 20a atzeritik datozen etorkinak dira (3.470), % 14a jaiotzei dagokie (2.464) eta erroldaren omisioak dira (1.053).

Bajei dagokienez, % 52a beste udalerrri batera etxer aldatutakoak dira (9.316), % 22a heriotzak dira (3.909) eta gainerakoak banatzen dira oker egindako izen emateen, atzerrira irteteagatiko bajen eta atzerritarren iraungitzeen artean (3.375, 761 eta 414, hurrenez hurren).

Jaiotzak eta heriotzak hazi dira baina hazkunde begetatiboak negatiboa izaten jarraitzen du.

Migrazio saldoaren emaitza positiboa da beste urte batez, hau da, biztanle gehiago heltzen dira udalerrira, izan estatuko beste udalerrri batetik edo atzeritik, Bilbotik kanpo bizitzera doazenak baino.

Udalerrriko saldo begetatiboa negatiboa da beste urte batez; 2.464 jaiotza eta 3.909 heriotza eman dira, eta 1.445 biztanlekoa izan da hirian galera.

Migrazio saldoa

	2016	2017	% 2017/16
Immigrazioa	13.585	14.076	3,6
Udalerrri aldaketa	11.038	10.606	-3,9
Atzeritik itzulera	2.547	3.470	36,2
Emigrazioa	9.917	10.077	1,6
Udalerrri aldaketa	9.103	9.316	2,3
Atzerrira irteera	814	761	-6,5
Migrazio saldoa	3.668	3.999	9,0

Iturria. Udal Errolda.

Biztanleriaren mugimendu naturala

	2016	2017	% 2017/16
Hazkunde begetatiboa	-1.464	-1.445	-1,3
Jaiotzak	2.443	2.464	0,9
Heriotzak	3.907	3.909	0,1
Jaiotza tasa gordina (‰ bizt.)	7,07	7,13	0,06 pp
Heriotza tasa gordina (‰ bizt.)	11,30	11,31	0,01 pp

Iturria. Udal Errolda.



6

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Demografía: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleria barruti eta auzoen arabera

Bilbo zortzi barruti eta berrogei auzotan antolatua dago. Ibaiondo da barruti jendetsuena udalerriko biztanle guztien % 17,9arekin. Otxarkoaga-Txurdinaga, Hiribilduko biztanleen % 7,5arekin, kontrako aldean kokatzen da 25.987 pertsona izanda.

Bilbo: 8 barruti eta 40 auzo
4.065 hektareatan.

2017an jaitsi egin da biztanleria zortzi barrutietatik lautan. Nabarmentzekoak dira Otxarkoaga-Txurdinaga eta Begoña biztanle galera handienak izan dituztelako (267 eta 231 pertsona gutxiago, hurrenez hurren). Uribarrik eta Basurtu-Zorrotzak ere galdu egin dituzte biztanleak, baina maila baxuagoan, 214 eta 76 pertsona, hurrenkera horretan. Bestalde, Abando eta Errekaldeko barrutiak nabarmentzen dira biztanleria handitzeagatik (293 eta 195 biztanle gehiago, hurrenez hurren).

Ibaiondo da biztanle gehien daukan barrutia eta Abando da biztanle gehien daukana km²-ko.

Biztanle dentsitate altuena Abando eta Begoñako barrutietan biltzen da, 24.069 bizt./km² eta 23.003 bizt./km²-ko dentsitateekin, hurrenez hurren. Dentsitate hauek ia hirukoiztu egiten dute udalerraren batez bestekoa. Deustu eta Uribarriko barrutiek ere Bilboko batez besteko dentsitatea gainditzen dute (9.861 bizt./km² eta 8.544 bizt./km², hurrenez hurren). Gainerako barrutiak azpitik daude, eta Basurtu-Zorrotza da batez besteko dentsitate baxuena daukana (4.577 bizt./km²-ko).

Biztanleria eta biztanleria dentsitatea barrutien arabera

	2016	2017	% 2017/16
Biztanleria (kop.)	345.642	345.474	-0,05
Abando	51.154	51.447	0,6
Basurtu-Zorrotza	32.607	32.531	-0,2
Begoña	40.841	40.610	-0,6
Deustu	48.977	49.111	0,3
Errekalde	47.584	47.779	0,4
Ibaiondo	61.931	61.929	0,0
Otxarkoaga-Txurdinaga	26.254	25.987	-1,0
Uribarri	36.294	36.080	-0,6

Iturria: Udal Errolda.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Demografía: Biztanleriaren bilakaera eta egitura


Biztanleria barruti eta auzoen arabera

Hauek dira auzo jendetsuenak: Santutxu (31.548 biztanle), Indautxu (27.527), Abando (23.920) eta Deustuko San Pedro (20.340). Lau auzo hauek batera Bilboko biztanleriaren % 30a hartzen dute. Aurkako aldean geratzen dira Elorrieta, Olabeaga, Loruri eta Erriberako auzoak. 1.300 biztanletik beherako datuak dauzkate guztiak.

Biztanleria galdu duten auzoak dira gehiengo 2017an.

Biztanleria jaitsi egin da, udal erroldak emandako datuen arabera, berrogei auzotik 24tan. Nabarmentzekoak dira haien artean Santutxu, Uribarri eta Txurdinaga, biztanleria galera esanguratsuenekin: 270, 161 eta 154 biztanle gutxiago, hurrenez hurren. Miribilla, Abando eta Iralabarriko auzoak, bestalde, azken urteko biztanleria hazkunde altuenak izan dituzte, 417, 193 eta 111 gehiago, hurrenkera honetan.

Bilboko biztanleriaren bilakaera 2016-2017an, auzoen arabera



Iturria: Udal Errolda.



8

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2


Atzerriko biztanleria

Atzerriko biztanleria hazi egin da Bilbon 26.074 pertsonakoa izateraino, lau urteko jaitiera jarraituaren ondoren. Biztanleriaren % 7,4a dira. Hiribilduak atzerriko 379 pertsona irabazi ditu aurreko urtearen aldean.

Atzerriko biztanleak biztanleria osoaren % 7,4a dira.

Atzerriko biztanleen profila pertsona gazte batena da, eta biztanleriaren piramideko erdiko multzoetan biltzen da. 2017an, atzerritarren % 53,0ak 25 eta 44 urte artean dauzka eta % 18,8ak 45 eta 64 urte artean dauzka. 15 urtetik beherakoak % 13,8a besterik ez dira eta % 2,2ak soilik dauzka 65 urte edo gehiago. Sexuen arabera banaketan ez da ezberdintasunik antzematen aurreko urtearen aldean, gehiago izaten jarraitzen dute errolatuta dauden atzerriko emakumeek atzerriko gizonek baino, 13.053 emakume 13.021 gizonez baino 2017an.

Atzerriko biztanleria



Iturria: Udal Errolda.

I Herritartasunaren arabera

Bilbon bizi diren atzerriko biztanleen % 42,0a Ameriketatik dator. Jarraian daude, hurrenkera honetan, Afrikatik, Europatik eta Asiatik etorritakoak (% 26,7, % 19,6 eta % 11,6).

Jatorriko herrialderi dagokierenez, Bilbon atzerriko biztanleria ugariena orain Marokotik etorritakoak dira (2.689 pertsona). Mila biztanle baino gehiago daude, baita ere, Errumania, Bolivia, Txina, Kolonbia, Paraguai eta Nikaragutatik etorriak (2.457, 2.447, 1.992, 1.637, 1.459 eta 1.329, hurrenkera berean). Zazpi herritartasun hauek, denak batera hartuta, Bilboko atzerriko biztanleen % 53,7a biltzen dute 2017an.

Aurreko urtearekin alderatuta asiarrak atzerriko biztanleria nabarmentzen da. 148 pertsonatan hazi da, % 5,2 2016. urtearen aldean. Gertutik jarraitzen diete amerikar jatorriko biztanleek, 2016an baino 123 pertsona gehiagorekin.

Atzerriko biztanleria	2016	2017	% 2017/2016
Atzerriko biztanleria	25.695	26.074	1,5
Emakumezkoak	12.892	13.053	1,2
Gizonezkoak	12.803	13.021	1,7
0-15 urte	3.438	3.599	4,7
16-24 urte	3.072	3.152	2,6
25-44 urte	13.940	13.824	-0,8
45-64 urte	4.714	4.911	4,2
65 urte eta gehiago	531	588	10,7
Europa	5.032	5.111	1,6
Afrika	6.931	6.953	0,3
Amerika	10.826	10.949	1,1
Asia	2.865	3.013	5,2
Ozeania	12	9	-25,0
Herrigabeak eta bestelakoak	29	39	34,5
Maroko	2.628	2.689	2,3
Errumania	2.458	2.457	0,0
Bolivia	2.812	2.447	-13,0
Txina	1.934	1.992	3,0
Kolonbia	1.552	1.637	5,5
Gainerako herrialdeak	14.311	14.852	3,8
% atzerriko bizt./biztanleria osoa	7,4	7,5	0,1 pp

Iturria: Udal Errolda.




9	Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1 2	Atzerriko biztanleak	Biztanleria: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila	
	Biztanleen mugimenduak		Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta	1 2
	Biztanleak barruti eta auzoetan	1 2	Barrutien arabera	Gizarte babesa	1 2
				Eskolatzeko maila	
				Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila	1 2

Atzerriko biztanleria | Barrutien arabera

Bilbon atzerriko biztanleriak barruti guztietan dauka presentzia, baina era ezberdinean banatzen da. Atzerriko herritartasunak dauzkaten pertsonen kontzentrazio handiena daukaten barrutiak dira: Ibaiondo (25,6%), Errekalde (19,5%), Deustu (12,0%) eta Abando (10,7%).


2017an zehar, Basurtu-Zorrotza, Abando eta Ibaiondoko barrutiak izan dira atzerriko biztanleak galdu dituzten bakarrak, eta azken honek jasan du eragin gehien, 47 pertsona galdu eta % 0,7ko jaitsierarekin 2016aren aldean. Jarraian datoz Abando eta Basurtu-Zorrotza, 15 eta 14 atzerriko gutxiagorekin hurrenez hurren (% -0,5 eta % -0,7, hurrenkera honetan). Errekalden, aldiz, eman da hazkunde esanguratsua atzerriko biztanlerian (259 hiritar gehiago, % 5,4).

Bilboko biztanleria osoaren eta atzeritarren banaketa 2017, barrutien arabera (%).



Iturria: Udal Errolda.

Grafikoa Atzerriko biztanleriaren bilakaera Bilbo barruti nagusiak 2008- 2017



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.



10 Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleen mugimenduak
Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2 Atzerriko biztanleak

Herritartasunaren arabera
1 2 Barrutien arabera

Biztanleria: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta 1 2
Gizarte babesa 1 2
Eskolatzeko maila
Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila 1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

Pertsonen eta Familien Errenta Eustatek burututako estatistika bat da. Bertan esaten da 18 urte eta gehiagokoen batez besteko errenta pertsonala, Bilbon bizi direnen artean, 20.526 eurokoa dela 2016. urtean, 2015ean lortutakoa baino % 1,0 gehiago. Bizkaian, batez besteko errenta pertsonala % 1,2 hazi da eta 19.818 eurotara heldu da 2016an. Hiriburuak gainditu egiten du lurraldeko batez besteko errenta eta baita Euskal A. E.koa ere. Azken hau, % 2,4 hazita ere, 20.443 eurotan gelditu da.

Bilboko biztanleen batez besteko errenta % 1,0 hazi da 2016an.

Laneko errenta pertsonala, errenta guztiaren osagai nagusia, 11.855 eurora heldu da batez beste, azken bost urteetan errepikatu diren jaisierekin apurtuz.

Errenta pertsonal erabilgarriari erreparatuta (errenta osoa, kenduta Errentaren Gaineko Zerga eta langileak ordaindu beharreko gizarte kotizazioak), Bilboko batez bestekoa 16.976 eurokoa da, 2015. urtean baino % 1,1 gehiago.

Laneko errenta pertsonala da diru sarrera iturri nagusia

Familia bereko kide guztien errenta pertsonal osoak batuta lortzen da familia errenta. Batez besteko familia errentari dagokionez, 42.370 eurotan kokatu da 2016an, % 2,0 handitu dira 2015ean erregistratutako batez besteko diru sarrerak. Berriro ere Bizkaian lortutako batez bestekoaren gainetik kokatu da (41.766 euro).

Pertsonen eta familien errenta

Batez besteko errenta pertsonala

	2015	2016	% 2016/15
Errenta pertsonala (€)	20.313	20.526	1,0
Emakumezkoak	16.050	16.495	2,8
Gizonezkoak	25.255	25.189	-0,3
Laneko errenta pertsonala (€)	11.734	11.855	1,0
Emakumezkoak	9.086	9.274	2,1
Gizonezkoak	14.803	14.841	0,3
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	16.797	16.976	1,1
Emakumezkoak	13.597	13.925	2,4
Gizonezkoak	20.507	20.506	0,0



Iturria: Eustat.

Batez besteko familia errenta

	2015	2016	% 2016/15
Familia errenta (€)	41.535	42.370	2,0
Emakumezkoak	35.207	36.672	4,2
Gizonezkoak	47.082	47.364	0,6
Laneko familia errenta (€)	24.085	24.550	1,9
Emakumezkoak	21.146	21.790	3,0
Gizonezkoak	26.662	26.971	1,2
Familia errenta erabilgarria (€)	34.321	35.020	2,0
Emakumezkoak	29.420	30.524	3,8
Gizonezkoak	33.618	38.961	15,9

Iturria: Eustat.

Pertsonen eta familien batez besteko errenta (€), esparru ezberdinetan, 2016-2015



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.



11 Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Biztanleen mugimenduak
Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2 Atzerriko biztanleak

Herritartasunaren arabera
Barrutien arabera

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta 1 2
Gizarte babesa 1 2
Eskolatzeta maila
Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila 1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta

Azkenik, Bilboko biztanleriaren errenta maila auzoz auzo aztertuta, aurreko urtearekiko ezberdintasunak antzematen dira. Errenta pertsonalaren kasuan, aldaketa altuenak Erribera eta San Frantzisko auzoei dagozkie, % 6,4 eta % 3,9 hazita urte artean, hurrenez hurren. Familia errentari dagokionez, ehunekoetan hazkunde handienak Erriberak eta Bilbo Zaharrak izan dituzte (% 6,7 eta % 3,8, hurrenkera honetan).

Errenta altuenak Abando eta Indautxuko biztanleenak dira.


Pertsonen errentari erreparatuta, 39 auzoetatik hamar kokatu dira hiribilduaren batez besteko errentaren gainetik. Abando nabarmentzen da, 35.022 euroekin, hiri osoko batez besteko

errenta altuena daukan auzo gisa, eta gertutik jarraitzen dio Indautxuk, 34.360 euroekin. Urrutixeago dago Castaños, 28.702 euroekin, udalerriko hirugarren errentarik hoberena.

Errenta pertsonal baxuena Iturrigorri-Peñascalek dauka, udal rankingaren atzealdean kokatzen da 10.418 euroekin. Jarraian, behetik gora, Otxarkoaga eta Uretamendi, 11.295 eta 11.453 euro, hurrenez hurren.

Batez besteko familia errentaren kasuan, nagusiki rankinga errespetatzen da, baina ezberdintasun batzuekin erdialdeko tartean. Batez besteko kopuru altuenak familia errentan ere Abandori (73.730 euroekin), Indautxuri (72.466 euro) eta Castañosi (58.817 euro) dagozkie. Behealdetik ere errepikatu egin da sailkapena familia errenta baxuenak daukatenen artean. Iturrigorri-Peñascal, Otxarkoaga eta Uretamendiko familiak dira familia errentak gutxien laguntzen dituenak (22.152, 22.402 eta 22.499 euro, hurrenkera honetan).

Gehieneko eta gutxieneko familia errenta auzoaren arabera, Barrutietan. 2016



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.

Renta personal y familiar. Bilbao por barrios, 2016

Barrio de residencia	Renta personal	Renta familiar	Barrio de residencia	Renta personal	Renta familiar	Barrio de residencia	Renta personal	Renta familiar
Abando	35.022 ▲	73.730 ▲	Errekaldeberri	15.863 ▲	32.469 ▲	Otxarkoaga	11.295 ▲	22.402 ▲
Altamira	13.338 ▲	26.694 ▲	Ibarrekolanda	20.435 ▲	43.997 ▲	San Adrian	17.371 ▲	37.746 ▲
Ametzola	21.351 ▲	45.022 ▲	Indautxu	34.360 ▲	72.466 ▲	San Frantzisko	13.389 ▲	28.501 ▲
Arabella	14.149 ▲	27.105 ▲	Iralabari	18.271 ▲	37.402 ▲	San Inazio	18.322 ▲	37.671 ▲
Arangoiti	14.139 ▲	29.940 ▲	Iturralde	18.796 ▲	37.522 ▲	Deustuko San Pedro	22.835 ▲	48.367 ▲
Atxuri	15.816 ▲	30.648 ▲	Iturrigorri-Peñascal	10.418 ▲	22.152 ▲	Santutxu	13.306 ▲	32.841 ▲
Basurto	22.800 ▲	46.749 ▲	La Peña	14.630 ▲	30.480 ▲	Solokoetxe	17.976 ▲	37.578 ▲
Begoña	22.028 ▲	47.316 ▲	Erribera	16.858 ▲	30.862 ▲	Txurdinaga	18.700 ▲	42.918 ▲
Bilbo Zaharra	14.236 ▲	27.080 ▲	Larraskitu	14.970 ▲	29.414 ▲	Uretamendi	11.453 ▲	22.499 ▲
Bolueta	14.561 ▲	30.092 ▲	Masustegi-Mintegitueta	18.045 ▼	38.811 ▲	Uribari	16.043 ▼	31.893 ▲
Alde Zaharra Bilbo	22.691 ▼	43.721 ▲	Matiko	18.403 ▲	36.222 ▲	Zabala	14.082 ▲	28.055 ▲
Castaños	28.107 ▼	58.817 ▼	Miribilla	25.317 ▲	48.301 ▲	Zorrotza	15.069 ▲	31.334 ▲
Loruri	22.336 ▲	49.287 ▲	Olabeaga	15.699 ▲	29.230 ▲	Zurbaran	18.194 ▲	37.275 ▲

Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.



12

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Gizarte babesa

Bizi baldintzen inkesta (2017)

INEk burutu eta argitaratu duen "Bizi baldintzen Inkestan⁽¹⁾ agertutako azken datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko etxebizitzetan pobrezia arriskuaren muga 11.538 eurotan kokatzen da urtean pertsonako. Estatu mailan lortutakoa (8.522 euro) baino 3.016 euro gehiago, kalkulua egiterakoan bizi-mailak daukan pisuaren ondorioz.

Pobrezia arriskuan dauden biztanleen ehunekoa Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleriaren % 21,6a izatera heldu da, aurreko urteko % 22,3aren aldean.

Inkesta honek AROPE adierazlea ere eguneratzen du, "At Risk of Poverty and/or Exclusion" esalditik datorkio izena. Adierazle honek hiru eremu funtsezko hartzen ditu definizioz: pobrezia mugatik baino baxuagoa den errenta edukitzea, oinarritzko kontsumo ondasunen gabezia material larria (GML) edukitzea eta/edo enplegurik ez edukitzea famili unitatean edo intentsitate baxuko bat edukitzea. Hiru egoera hauetako bat betetzea nahikoa da arriskuan dagoen biztanleria gisa hartua izateko. Hiru alderdi hauek kontutan hartuta, eta 2016. urteari dagozkion datuekin, Euskal Autonomi Erkidegoan bazterketa arriskuan daude 320.000 biztanle, hau da, biztanleriaren % 14,5a. Argitaratu denaren arabera, 2016ean eskuratutako datua 2015ekoa baino txikiagoa da (% 15,9) eta estatu mailan lortutako datua (% 26,6) baino 12,1 beherago kokatzen da.

(1) INEK egindako Bizi baldintzen inkestak ez du udalerrri mailako daturik ematen.

Etterik ez daukaten pertsonentzako baliabideak (2016)

Eustatek argitaratu duenaren arabera, etterik ez daukaten pertsonentzako arretak 20.911 mila euroko gastua ekarri du Bilbon, Bizkaiko gastuaren % 81,5a eta % 44,1 EAE osoaren aldean.

Bilbon etxegabeentzako arreta zentroen sareak ematen dituen zerbitzuak, nagusiki, ostatua, jatetxea, eguneko arreta eta kaleko arreta dira. Bilbon daude Bizkaian lotarako lekua daukaten 101 zentroetatik 91. Bertan etterik ez daukaten pertsonak 1.060 lotarako leku dauzkate, jateko 964 eta 1.201 eguneko plaza.

Bertan ostatu hartzen duten pertsonak 910 dira, 1.353 jatetxe zerbitzu erregistratu dira eta eguneko zentroetan eta kalean artatutako pertsonak 1.067 eta 173 dira, hurrenez hurren.

Azkenik, mila pertsona inguruk osatzen dute soldatapeko langile, bolondres eta/edo azpikontratatuaren taldea, etxegabeentzako arreta zerbitzu ezberdinetan lanean dabilena.



13

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2 Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta hezkuntza maila

Gizarte babesa

Gizarte babesa Bilbon

Lanbidek emandako datuen arabera, 2017. urtean Bilbora 122.546.762,77 €-ko kopurua bideratu da, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Guraso Bakarreko Unitateentzako Diru-laguntza eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria kudeatzeko. Guzti horren % 82a, 100.411.721,03 €, DSBEra eta Guraso Bakarreko Unitateen Diru-laguntzara bideratzen da, eta gainerakoa, 22.135.041,74 €, Etxebizitzaren Prestazio Osagarrietara. 15.710 hartzaile lagundu dira batez beste hilabetero, eta 2017ko abenduaren amaieran 15.417 izatera heldu dira, aurreko urtean baino % 4,3 gutxiago.

Diru Sarrerak Bermatzeko 15.417 Errenta eta gizarte larrialdietako 6.132 laguntza tramitatu dira.

Gizarte Larrialdiko Laguntzei dagokienez, 2017an guztira 7.560 eskaera bideratu dira. Horietatik 6.132 onartuak izan dira eta, guztira, 5,2 milioi euroko kopurua ordaindu da (2016an baino % 4,4 gutxiago).

Barrutien arabera, San Frantzisko-La Peñak dauka ordaindutako GLL kopuru handiena (850 guztira), Otxarkoaga-Txurdinaga (808) eta Santutxu-Boluetaren aurretik (776). Abando eta Zorrotzako barrutiak daude rankingaren amaieran ordaindutako GLL kopuru txikienekin (221 eta 224, hurrenez hurren).

Basurtu-Altamirako barrutian soilik hazi da GLL kopurua biztanleen artean, % 1,0 igota aurreko urtearen aldean. Gainerako barrutietan murriztu egin da kudeatutako GLL kopurua. Abando nabarmentzen da emandako laguntzen % 16 gutxiagorekin, eta jarraian Otxarkoaga-Txurdinaga eta San Frantzisko-La Peña, % 6,7 eta % 5,6ko murrizketekin, kasu bakoitzean.

Bestalde, edozein arrazoiengatik aurreko laguntzetan lekurik ez daukatenentzako, Udal Laguntza Berezien paketeak dauzka Udalak. 2017. urtean zehar mota honetako 117 laguntza eman dira, 167.736,37 € guztira, eta 158 etxebizitza gastuetarako bereziki, hauek 264.270,48 € izan dira.

Era berean, 213 txosten kudeatu dira Bizkaiko Foru Aldundiaren Inklusiorako Laguntza Berezien barruan.

Azkenik, 6 gizarte hezitzailek osatutako talde batek, 2017an zehar, etxe gabeko 447 pertsona artatu ditu guztira, horien % 84a gizonetzkoak.

Ordaindutako gizarte larrialdiko laguntzak, oinarriko gizarte zerbitzuen arabera

	2016	2017		% 2017/16
	Ordainduak	Ordainduak	Kopurua (€)	
Guztira emandako laguntzak (kop.)	6.403	6.132	5.226.490,35	-4,2
Deustu-San Inazio	556	543	440.337,05	-2,3
Uribarri-Zurbaran	569	548	475.133,61	-3,7
Otxarkoaga-Txurdinaga	866	808	719.839,88	-6,7
Santutxu-Boluet	817	776	640.243,79	-5,0
Alde Zaharra	516	500	411.177,08	-3,1
San Frantzisko-La Peña	900	850	728.884,07	-5,6
Irala-San Adrian	489	480	421.246,00	-1,8
Errekalde-Peñascal	695	687	590.392,71	-1,2
Abando	263	221	175.518,50	-16,0
Zorrotza	228	224	210.375,66	-1,8
Basurtu-Altamira	306	309	269.837,50	1,0
Gainerakoa: Prestazio ekonomikoak, Berdintasun Saila, Elejabarri Aterpea, Gizarte larrialdiak...	198	186	143.504,50	-6,1

Iturria: Bilboko Udala, Gizarte Ekintza saila.

14

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Eskolatzeta maila

Eustatek Bilboko Hezkuntzaren Udal Estatistikan argitaratutako azken datuen arabera, ikasten ez dabiltzan hiriko biztanleen % 21,6ak goi mailako titulu bat dauka, 66.973 pertsona guztira, 2015ean baino % 2,0 gehiago eta 2010ean baino % 12,5 gehiago. Talde honetara erdi-goi mailako biztanleen taldea gehituta, kopurua 92.619 pertsonaraino hazten da, guztien % 29,4a.

Goi mailako ikasketak dauzkaten biztanleak % 21,6a dira.

Biztanleen % 22,7ak bigarren mailako ikasketak dauzka eta % 14,4ak, profesionalak. % 30,3ak lehen mailako ikasketak dauzka eta % 3,2ak ez du ikasketarik.

ESKOLATZETA

	2010	2013	2014	2015	2016	Ald. 2016-15		Ald. 2016-10	
						Nº	%	Nº	%
Burututako ikasketak (10 urte eta gehiagoko bizt., kop.)	324.171	319.013	316.176	315.223	314.912	-311	-0,1	-9.259	-2,9
Analfabeto eta Ikasketa Gabeak	13.612	11.662	11.032	10.586	10.047	-539	-5,1	-3.565	-26,2
Lehen Hezkuntza	106.751	101.016	98.749	96.934	95.301	-1.633	-1,7	-11.450	-10,7
Profesionalak	41.164	43.690	44.323	44.817	45.388	571	1,3	4.224	10,3
Bigarren Hezkuntza	74.366	73.113	71.410	72.050	71.557	-493	-0,7	-2.809	-3,8
Erdi-goi maila	27.853	25.274	24.709	24.210	24.646	436	1,8	-3.207	-11,5
Goi maila	60.425	64.258	65.953	66.626	67.973	1.347	2,0	7.548	12,5

Iturria: Eustat. Udal Hezkuntza Estatistika.



15	Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	1	2	Atzerriko biztanleak	Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila	
	Biztanleen mugimenduak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta	1 2
	Biztanleak barruti eta auzoetan	1	2	Barrutien arabera	Gizarte babesa	1 2
					Eskolatzeta maila	
					Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila	1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

Bilboko heziketa zentroen sareak heziketa eskaintza garrantzitsua dauka, beren heziketa udalerrian burutu nahi duten ikasleei zabalik, kontutan hartu gabe zein den beren ohiko bizilekua.

Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

2016/2017 ikasturtean zehar, Bizkaian, Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleen % 28,3ak Bilbon burutzen ditu ikasketak, Eustatek argitaratutako datuen arabera eskola jardueren Estatistikan. Kopuru absolutuetan, guztira 54.918 ikasle dira matrikula egiten dutenak Bilboko ikastetxe publikoetan eta/edo pribatu-itunpekoetan, unibertsitatez kanpoko heziketa akademikoa egiteko.

Bilbon unibertsitatez kanpoko
54.918 ikasle daude.

Bilbon eskolatutako ikasleen % 58,6a itunpeko irakaskuntza zentroetan dabil. Honek esan nahi du, datu absolutuetan, 32.170 ikasle daudela matrikulatuta sare horretan. Gainerako % 41,4ak sare publikoan hautatzen du heziketarako, eta 22.748 ikasle dira guztira.

D ereduak biltzen du Bilboko ikasle guztien % 44,8a. Jarraian daude B eta A ereduak, ikasleen % 27,6 eta % 26,4arekin, hurrenez hurren. Sare publikoan eredu nagusia D eredu da, ikasleen % 68,0arekin, eta sare publikoan berriz ikasleen % 28,3a soilik matrikulatzen da. B ereduak sare publikoan presentzia oso txikia dauka, ikasleen % 4a biltzen du soilik. Sare pribatuan, aldiz, ikasleen % 44,2ak hautatzen du aukera elebiduna. Azkenik, sareko ikasleen % 28,0ak A ereduaren burutzen ditu ikasketak, eta pribatuan % 25,3ak. X ereduak Bilbon 699 ikasle biltzen ditu, denak sare pribatuan.

Araubide orokorreko ikasleen banaketa, maila eta lurraldearen arabera, 2016-17

	Hasierako irakaskuntzak			Bigarren mailako irakaskuntzak					HH	Guztira
	Haur hezkuntza	Lehen hezkuntza	HB(*)	DBH		DBPH				
				DBH	HB(*)	BATX.	LH (Oinarritzkoa, Erdi maila eta Goi maila)	ZI(*)		
Bilbao	11.296	16.431	103	11.061	27	5.286	7.900	90	2.724	54.918
Bizkaia	45.366	64.864	295	40.915	150	15.336	19.182	243	7.477	193.828
CAPV	91.103	129.521	510	81.389	321	30.231	39.836	544	14.090	387.545

(*) Hezkuntza Berezia: Haur eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Zereginen Ikaskuntza. Iturria: Eustat, Eskola Jardueren Estatistika.



16

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

1 2

Atzerriko biztanleak

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

1 2

Barrutien arabera

Gizarte babesa

1 2

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

Araubide Bereziko irakaskuntza

Araubide Bereziko irakaskuntzak heziketaren hiru eremu handi barnebiltzen ditu: irakaskuntza artistikoa (musika, dantza, arte plastikoak eta diseinua, eta arte dramatikoa), hizkuntzen irakaskuntza eta kirol irakaskuntza.

Argitaratutako azken datuen arabera, EAEn araubide bereziko irakaskuntzak 137 zentro biltzen ditu, 2.508 irakasle eta 85.454 ikasle daude matrikulatuta 2015-2016 ikasturterako. Bilbon 17 dira irakaskuntza mota hau eskaintzen duten ikastetxeak.

Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko zentroak Bilbon

	2016
Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko zentroak	156
Haur hezkuntza (1. zikloa)	87
Haur hezkuntza (2. zikloa)	64
Lehen Hezkuntza	62
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	46
Batxilergoa	35
Lanbide Heziketa- Oinarrizkoa	11
Lanbide Heziketa- Erdi maila	22
Lanbide Heziketa- Goi maila	23
Hezkuntza Berezia	17
Helduentzako Hezkuntza- HH	6
Araubide Bereziko ikastetxeak	17
Musika ikastetxeak- Oinarrizko maila	7
Musika ikastetxeak- Erdi maila	5
Musika eskolak	6
Dantza ikastetxeak- Goi maila	1
Arte plastiko eta diseinu ikastetxeak- Goi maila	2
Hizkuntza eskolak	1
Kirol Irakaskuntza Zentroak- Erdi maila	2
Kirol Irakaskuntza Zentroak- Goi maila	1

Iturria: Bilboko Udala. Hezkuntza Saila.

Unibertsitate irakaskuntza

Bilbok 18.054 unibertsitate ikasle dauzka 2017/2018 ikasturtean, hirian kokatutako hiru unibertsitateetan ikasten: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea, azken biak izaera pribatukoak.

Guztira 18.054 ikasle dabilta unibertsitate ikasketara Bilbon egiten.

EHUK 9.423 ikasle dauzka Bilbon, matrikulatutako ikasle guztien % 52,2a. Horietatik, 7.974 graduiko ikasketak egiten dabilta, 1.155 Master Ofizialetan banatzen dira eta gainerakoek unibertsitatearen berezko tituluak ikasten dituzte.

Bere aldetik, Deustuko Unibertsitateak ikasleen % 46,8a biltzen du, 8.457 ikasleekin guztira ikasgeletan. Horietatik 6.268 graduiko ikasketak burutzen ari dira, 1.334 unibertsitate Masterrak egiten, 305 dokto-retza ikasketetan eta gainerakoak ikasketara arautu ez ofizialetan.

Azkenik, Mondragon Unibertsitateak 174 ikasle dauzka. 118 Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan, 25 Erakundeen Nazioartekotzea Masterrean eta 31 Marketin Digitaleko Masterrean.

Unibertsitate ikasleak Bilbon

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

9.423

Deusto Universidad de Deusto

8.457

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

174

Iturria: EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Ekonomia eta enpresa

2

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Erradiografia jarduera sektoreka
Banaketa barrutietan

Soldatepeko beharginak dituzten enpresak

Afiliazioa Autonomoen Araubidean

Enpresen dinamikotasuna

Merkataritza elkarte berriak
Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan
Kontratu erregistratuak

Ekoizpen ekonomia

Eraikuntza
Industria
Zerbitzuak
Kanpo merkataritza

Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Bilbon % 1,6ko hazkundearekin amaitu da 2017. urtea jarduera ekonomikoaren lizentzia kopuruan, eta 40.630ra heldu da, aurreko urtean baino 649 lizentzia gehiago. Guzti horietatik % 74,5a enpresa jarduerak dira (30.281), % 24,5a profesionalak (9.953) eta % 1,0a jarduera artistikoak dira (396).


2017an % 1,6 hazi dira ekonomia jarduerak Bilbon.

Hazkundea handiagoa da, kopuru absolutuei dagokienez, enpresa jardueretan (466 jarduera gehiago, % 1,6, eta jarraian profesionalak (156 jarduera gehiago, % 1,6) eta artistikoak (27 jarduera gehiago, % 7,3).

I Erradiografia jarduera sektoreka

Sektoreka lehen azterketa bat egin eta gero agerian gelditzen da Zerbitzuen sektoreak hirian daukan garrantzia. Enpresa jarduerak zein jarduera profesionalak kontutan hartuta, sektore honek 35.867 lizentzia biltzen ditu, guztien % 88,3a. Bere aldetik, Eraikuntzak hartzen du lizentzia guztien % 7,2a (2.932) eta Industriak % 3,5a (1.435). Hiriko ekonomia sarearen mapa osatuz, jarduera artistikoak, 396 lizentziarekin, guztien % 1,0a dira.

2016 urtearen aldean jarduera lizentzien kopuruak bilakaera positiboa izan du sektore guztietan. Bereziki nabarmendu dira, kopuru erlatiboetan izandako hazkundeagatik, Eraikuntza sektoreko lizentziak (% 6,1, 169 gehiago) eta jarduera Artistikoak (% 7,3, 27 gehiago). Industriak ere lizentziak berreskuratu ditu % 0,3 hazita (4 lizentzia gehiago) eta baita zerbitzuek ere, % 1,3 (449 gehiago).



Ekonomia eta enpresa jarduerak

	2016	2017	Ald. Abs.	% 2017/16
Ekonomia jarduerak	39.981	40.630	649	1,6
Enpresa jarduerak	29.815	30.281	466	1,6
Industria	1.431	1.435	4	0,3
Eraikuntza	2.763	2.932	169	6,1
Zerbitzuak	25.621	25.914	293	1,1
Merkataritza	8.991	8.948	-43	-0,5
Ostalaritza	3.114	3.097	-17	-0,5
Finantza eta aseguruak	833	822	-11	-1,3
Higiezinak	1.034	1.073	39	3,8
Enpresendako zerbitzuak	4.702	4.865	163	3,5
Bestelako zerbitzuak	6.947	7.109	162	2,3
Jarduera profesionalak	9.797	9.953	156	1,6
Jarduera artistikoak	369	396	27	7,3

Lizentzia kopurua. Urteko datuak urteko azken hiruhilekoari dagozkie. Ez dira barne hartu lehen sektoreari lotutako jarduerak. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza

1 2

Industria

Zerbitzuak

1 2

Kanpo merkataritza

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Jardueraren banaketa barrutietan

Abandoko barrutiak lidergoa mantentzen du hiriko ekonomia jardueran, 14.043 lizentzia izanik 2017aren itxieran, % -0,4ko jaitsiera xume bat jasan ondoren. Hala, barrutiak bere postua izaten jarraitzen du merkataritza, finantza eta zerbitzuen erdigune bezala (Hiribilduko jardueren % 35,6a).

Merkataritza jarduera da nagusi barruti guztietan, Abandon izan ezik.

Zerbitzuen sektoreak, praktikan, monopolizatu egiten du barrutiko enpresa eta negozioen jarduera. Jarduera guztietatik % 30 inguru jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokie. Jarraian datoz, garrantziaren araberrako hurrenkeran, merkataritza eta konponketak, osasungintzako eta gizarte zerbitzuetako jarduerak, eta ostalaritza.

Otxarkoaga-Txurdinagako barrutia da enpresen dinamikotasun gutxien daukana, Hiribilduaren % 1,6a soilik. Alde onari begiratuta, esan beharra dago 2017an lizentzia kopurua % 3,1 hazi dela, hirian % 1,6 hazi den bitartean.

Udalerrriaren gainerakoan bezala, barruti honetan nabarmendu den sektorea Zerbitzue-na da, merkataritza zehazki. Nagusi dira, era berean, eraikuntzako sektoreari eta garraio eta biltegiatzeari lotutako enpresak.


Txikizkako merkataritza eta Ostalaritza dira hiriko barruti guztietan pisu gehien daukaten jarduerak, Abandon izan ezik. Nabarmentzekoak dira baita ere, barruti horretan daukaten kontzentrazioagatik, finantza zerbitzuak eta zerbitzu juridikoak eskaintzarekin lotutako jarduera profesionalak.

Ekonomia jarduerak barrutien arabera

	2016	2017	%2017/16
Ekonomia jarduerak	39.981	40.630	1,6
Deustu	3.506	3.492	-0,4
Uribarri	1.831	1.808	-1,3
Otxarkoaga-Txurdinaga	639	659	3,1
Begoña	2.424	2.415	-0,4
Ibaiondo	4.401	4.422	0,5
Abando	14.096	14.043	-0,4
Errekalde	2.522	2.497	-1,0
Basurtu - Zorrotza	1.804	1.810	0,3
Barrutian zehaztu gabe	8.758	9.481	8,3

Lizentzia kopurua. Urteko datuak urteko azken hiruhilekoari dagozkio. Ez dira barne hartu lehen sektoreari lotutako jarduerak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Ekonomia jardueren aldateka barrutiaren arabera. 2017-2016.



Erradiografia jarduera sektoreka
Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak
Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan
Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2
Industria
Zerbitzuak 1 2
Kanpo merkataritza

Soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak

Gizarte Segurantzaren izen emandako soldatapeko beharginak dauzkaten Bilboko enpresen kopurua ez da apenas aldatu 2017an zehar, 30 enpresatan hazi baita soilik, 12.403 izatera helduta, % 0,2ko igoera ehunekotan 2016.

Soldatapeko beharginak dauzkaten
30 enpresa gehiago Bilbon.

Urte amaieraren aldean. Hiriko enpresa sarean nagusi dira soldatapeko beharginak dauzkaten zerbitzuen sektoreko enpresak, 11.037 dira guztira, eta beren egituraren % 89,0a hartzen dute. Hauen artean nabarmentzen dira merkataritza atxikitako enpresak, guztien % 22,9a direlarik, eta joera negatiboa izan dute urtean zehar, % 1,8ko jaitsierarekin (52 gutxiago). Bigarrenik, kopuruagatik, jarduera Profesional, zientifiko eta teknikoei lotutako enpresak daude, 1.643 biltzen dituzte, eta enpresa guztien % 13,2a dira. Aldaketa kasu honetan positiboa da, % 2,9 hazita.

Industria eta energiak guztien % 4,5a ordezkatzeko dute, eta Gizarte Segurantzaren izen emandako 564 enpresa biltzen dituzte, 2017. urtean % 1,3 hazi ondoren. Eraikuntza % 2,0 hazi da, eta izen emandako 777 enpresekin amaitu du urtea. Lehen sektorea, 25 enpresekin, ez da oso esanguratsua hiriko ekonomia sarearen osotasunean.

Soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak*

	2016	2017	% 2017/16
Enpresak	12.373	12.403	0,2
Lehen sektorea	26	25	-3,9
Industria eta energia	557	564	1,3
Eraikuntza	793	777	-2,0
Zerbitzuak	10.997	11.037	0,4
Merkataritza	2.891	2.839	-1,8
Garraioa	484	477	-1,5
Ostalaritza eta ostatuak	1.443	1.444	0,1
Informazioa eta Komunikazioak	436	427	-2,1
Finantza eta aseguruak	375	370	-1,3
Higiezinak	317	308	-2,8
Profesional, zientifiko eta teknikoak	1.597	1.643	2,9
Administratiboak eta laguntzaileak	647	667	3,1
Administrazio Publikoa	109	109	0,0
Hezkuntza	428	466	8,9
Osasungintza	702	688	-2,0
Gizarte zerbitzuak	264	269	1,9
Aisialdia eta kultura	288	279	-3,1
Bestelako zerbitzuak	1.016	1.051	3,4
Etxebizitzak enplegatzaile gisa	8.703	8.589	-1,3

Gutxienez soldatapeko pertsona bat daukaten enpresen kopurua.
*Kanpo utzi dira etxebizitzak enplegatzaile gisa, aparte azaltzen dira.
Datuak urte bakoitzeko abenduari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Erradiografia jarduera sektoreka
Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak
Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan
Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2
Industria
Zerbitzuak 1 2
Kanpo merkataritza

Afiliazioa Autonomoen Araubidean

Bilbon Behargin Autonomoen Araubide Berezian izen emandako biztanle kopurua, 2017ko abenduan, % 0,2 xumea hazi da urte arteko terminoetan eta 22.583 pertsonatan kokatu da, 48 afiliazioko igoera eman ondoren.

Araubide honetan izen emandako pertsonen gehiengoa zerbitzuen sektorean dabil beharrean (% 81,7). Nabarmentzekoak dira Txikizkako merkataritza adarrean dauden afiliazioak. Hauek, Ostalaritzakoekin batera, 6.432 biltzen dituzte eta autonomo afiliatutako biztanle guztien % 28,5a dira. Nabarmendu egiten dira, baita ere, jarduera Profesional, zientifiko eta teknikoetan afiliatutakoak, 2.675 dira guztira (% 11,8).

Sektore handien arabera, emaitza negatiboena azaltzen duena lehen sektorea da (% -7,7), nahiz eta hirian duen presentzia ez den oso esanguratsua. Eraikuntza % 2,0 hazi da, Industria eta energia % 0,3 eta Zerbitzuak egonkor mantendu dira (% 0,0).

Zerbitzuen sektorearen barruan, eta hiriko ekonomian daukan pisuaren ondorioz, nabarmentzekoak dira jasan diren murrizketak Ostalaritzan (% -2,8) eta Handizkako merkataritzan (% -3,3). Alde onari begiratuta, hazi egin da pertsona autonomoen afiliazioa Hezkuntzan (% 5,2) eta Garraio eta biltegiatze jardueretan (% 3,8).

Autonomoen Araubide Berezian Afiliatuak

	2016	2017	% 2017/16
Afiliatutako biztanleak (kop.)	22.535	22.583	0,2
Lehen sektorea	78	72	-7,7
Oihalak, jantzigintza, etab.	130	139	9	6,9
Farmazia eta etxerako produktuak	118	119	1	0,9
Epe luzeko kontsumo ondasunak	307	311	4	1,3
Industria arteko merkataritza	421	418	-3	-0,7
Bestelako handizkako merkataritza	264	266	2	0,8
Produktuen berreskurapena	65	65	0	0,0
Merkataritza bitartekariak	373	398	25	6,7

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Ekonomia Jardueren gaineko Zerga.

Merkataritza jarduerak eta enpresak

2017. urte amaieran handizkako merkataritzaren portaera positiboa da, izan ere, 40 jarduera lizentzia gehiago dauzka, % 2 gehiago. Handizkakoaren barruan, industria arteko merkataritza da lizentzia kopuru handiena hartzen duena, 418 guztira, eta jarraian datoz merkataritzaren bitartekariak, 398rekin, nekazaritzako lehengaien merkataritza 355ekin eta, azkenik, epe luzeko kontsumo ondasunak 311 lizentziarekin. 2017an lizentzia gehien gehitu duen atala merkataritzako bitartekariena da, 25 gehiago lortu dituzte haiek (% 6,7ko igoera). Kopuru aldetik jarraian datoz oihal, jantzi, oinetako eta larruzko gaien handizkako merkataritza, 9 lizentzian igo direnak, % 6,9. Industria arteko merkataritzak, baina, hiru lizentzia galdu ditu.

% 1,8 murriztu dira Merkataritzari lotuta dauden eta soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak.

Soldatapeko beharginak dauzkaten eta Gizarte Segurantzaren izen emandako enpresen erregistroak emandako datuekin ikus dezakegu, 2017 amaieran, 2.839 kontu daudela Merkataritzari lotuta. Hauetatik, txikizkako merkataritzak hartzen du % 68,5a, 1.945 enpresarekin, handizkakoak % 24,1a, 683rekin, eta ibilgailuen salmenta eta konponketak % 7,4a hartzen du, 211 konturekin.

Sektoreak bere osotasunean % 1,8ko murrizketa jasan du 2017an, 52 enpresa gutxiago daudelarik. Jaitsi egin dira bai txikizkako merkataritzan izen emandako enpresak (27 gutxiago, % -1,4) eta baita handizkakoan izen emandakoak ere (17 gutxiago, % -2,4). Enpresak galdu ditu motor ibilgailuen salmenta eta konponketen arloak ere (8 gutxiago, % -3,7).

Merkataritza sektoreari lotutako autonomoen taldea 6.042 pertsonen osatzen du. Aurreko urtearekin alderatuta, 87 autonomo gutxiago daude erregistratuta, % -1,4. Merkataritzaren 3 azpisektoreek joera negatiboa erakutsi dute. Jaitsiera handiena ibilgailuen salmenta eta konponketari loturiko autonomoek izan dute, 55 afiliatu galdua (% -3,4). Ondoren handizkako merkataritzari lotutako autonomoak 52 gutxiagorekin (% -3,3) eta, neurri txikiagoan, txikizkako merkataritzari lotutakoak, 20 afiliatu gutxiagorekin, % -0,5.

Soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak

	2016	2017	% 2017/16
Soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak	2.891	2.839	-1,8
Txikizkako merkataritza	1.972	1.945	-1,4
Handizkako merkataritza	700	683	-2,4
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	219	211	-3,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Autonomoen Erregimen Berezian afiliatutako biztanleak. Merkataritza

	2016	2017	% 2017/16
Afilazioa Autonomoen E. B.an	6.129	6.042	-1,4
Txikizkako merkataritza	4.092	4.072	-0,5
Handizkako merkataritza	1.593	1.541	-3,3
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	444	429	-3,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Merkataritza jardueraren dinamikotasuna

2017. urtean zehar 925 txikizkako merkatarik eman dute izena guztira, 2016an baino 119 gutxiago (% -11,4). Handizkako merkataritzaren kasuan 216 izen emate erregistratu dira, aurreko urtean baino 18 gutxiago, % -7,7a.

Jaitsi egin dira izen emateak txikizkako eta handizkako merkataritzan.

Txikizkako merkataritzan izen eman duten lizentzien % 32a elikadura, edari eta tabako dendei dagokie, 299 zehazki. Jarduerarik dinamikoena dira, oihal eta oinetakoena eta etxeko hornikuntzenarekin batera, 148 eta 98 izen emate erregistratu dituzte hauek, hurrenez hurren.

Arlo hauek dira, bereziki, urte artean bilakaera okerreza izan dutenak, izen emate kopuruari dagokionez. Nabarmentzekoak dira emandako jaitsierak elikadura, edari eta tabakoetan, 2016an baino 87 izen emate gutxiagorekin. Oihal eta oinetakoetan 14 izen emate gutxiago izan dira, eta galera berdina izan dute liburuak eta egunkariak saltzen dituzten dendek. Etxeko tresneriaren arloak 13 izen emate gutxiago izan ditu. Alabaina, izen emateen kopuruan hazi egin dira jostailu eta kirol gaiak saltzen dituztenak (10), musika instrumentuak eta ortopediak (7), bitxiteria (6) eta loradenda eta antzekoak (5).

Handizkako merkataritzan 2016an baino 18 izen emate gutxiagoko saldoa erregistratu da. Erregistro positiboekin, nabarmentzekoak dira oihalen handizkako merkatariek, lau gehiagorekin. Merkataritzako bitartekariak ere lau izen emate gehiago lortu dituzte. Izen emate gutxiago erregistratu dituzte epe luzeko kontsumo ondasunen merkatariek, zazpi gutxiagorekin, nekazaritzako lehengaien handizkako merkatariek, sei gutxiagorekin, eta industria arteko merkataritzak hiru gutxiago. Bestelako handizkako merkataritza hartzen duen taldeak 2017an hamaika izen emate gutxiago dauzka aurreko urtean baino.

Merkataritza jardueren izen emateak

	2016	2017	% 2017/16
Txikizkako merkataritza jardueren izen emateak	1.044	925	-11,4
Elikadura, edariak, tabakoa	386	299	-22,5
Oihal eta oinetakoak	162	148	-8,6
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	63	54	-14,3
Etxeko hornikuntza eta eraikuntza	111	98	-11,7
Altzariak, bulego hornikuntza	12	9	-25,0
Liburuak, egunkariak...	42	28	-33,3
Bitxiteria	9	15	66,7
Jostailuak, kirol gaiak	12	22	83,3
Musika instrumentuak, ortopedia	10	17	70,0
Loradenda eta antzeko	9	14	55,6
Lur, aire eta itsasoko ibilgailuak, etab.	49	50	2,0
Saltoki handiak, bazarrak	36	38	5,6
Saltokiz kanpoko merkataritza	96	95	-1,0
Gainerakoa (erabilitako gaiak, musika instrumentuak, zigilu eta txanponak, sex-shopak, erregaiak, etab.)	47	38	-19,1
Handizkako merkataritza jardueren izen emateak	234	216	-7,7
Handizkako merkataritza	179	156	-12,8
Nekazaritzako lehengaiak	46	40	-13,0
Oihalak, jantzigintza, etab.	18	22	22,2
Farmazia eta etxeko produktuak	16	16	0,0
Epe luzeko kontsumo ondasunak	36	29	-19,4
Industria arteko merkataritza	26	23	-11,5
Bestelako handizkako merkataritza	37	26	-29,7
Produktuen berreskurapena	7	8	14,3
Merkataritza bitartekariak	48	52	8,3

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Ekonomia Jardueren Zerga.

Soldatapeko enplegua

Merkataritzak Bilbon 2017 amaieran 20.558 pertsonari ematen die enplegua, Gizarte Segurantzako erregistroen arabera. Ekonomia jardueren osotasunean enplegu guztiaren % 11,7a hartzen du, eta pertsona gehien enplegatzen dituen sektore gisa kokatzen da.


Txikizkako merkataritza da gehiengoa 14.184 afiliaturekin eta merkataritzako enpleguaren % 69arekin. Urrunetik jarraitzen dio handizkako merkataritzak 5.006rekin eta, azkenik, ibilgailuen salmenta eta konponketak, afiliatutako 1.368 pertsonarekin.

% 1,2 jaitsi da Bilboko merkataritzan afiliatutako pertsonen konpurua.

Merkataritzako hiru arloek galdu dute afiliazioa aurreko urtearekiko, eta merkataritzak orokorrean 254 erregistro galdu ditu, % 1,2 urte artean. Zehazki txikizkako merkataritza da afiliazio gehien galdu dituen, 232 pertsona (% -1,6); handizkakoak 20 afiliatu gutxiago dauzka, % -0,4; eta ibilgailuen salmenta eta konponketak 2 afiliazio galdu ditu.

Bere ekarpena gutxitu badu ere, handizkako merkataritzak udalerriko merkataritza enpleguaren % 24a mantentzen du, eta ibilgailuen salmenta eta konponketak % 6,7a hartzen du.

Merkataritza sektorean enplegatutako hamar pertsonatik zazpi besteren kontura egiten dute lan eta araubide orokorrean kotizatzen dute, eta hiru daude behargin autonomoen araubide berezian izen emanda. Bi esparruek galdu dituzte afiliatuak: % -2,1 soldatapeko pertsonen multzoak eta % -4,1 autonomoenak.



Enplegatutako pertsonak

	2016	2017	% 2017/16
Enplegatutako pertsonak	20.812	20.558	-1,2
Txikizkako merkataritza	14.416	14.184	-1,6
Handizkako merkataritza	5.026	5.006	-0,4
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.370	1.368	-0,1
Soldatapeko pertsonak	14.682	14.515	-1,1
Pertsona autonomoak	6.129	6.042	-1,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Etxebizitzetako kontsumoa

Bizkaiko etxebizitzetako gastua, guztira, 16.194.558 mila eurokoa izan zen 2017an, egonkor mantenduz aurreko urtearekiko. Euskadin etxebizitzetako batez besteko gastua 33.709 eurokoa da 2017an, aurreko urtean baino % 0,1 gehiago. Bestalde, pertsonako batez besteko gastua 14.175 eurokoa izatera heldu da, 2016ko kopuruaren antzeko.

Bere aldetik, txikizkako merkataritzaren Salmenta Indizea % 0,5 hazi da Bizkaiko lurraldean 2016 urtearen aldean, aurreko urtean baino gutxiago, % 2,8 hazi baitzen orduan. Bitartean, kontsumo salneurrien indizeak % 1,0ko igoerarekin itxi du 2017. urtea.

Gastuaren banaketak Bizkaiko etxebizitzetako artean adierazten du. Etxebizitzetako ur, elektrizitate, gas eta bestelako erregaiei bideratutako aurrekontua dela pisu gehien daukana, gastu guztiaren % 33a. Kategoria honen ondoren daude Elikadura eta edari ez-alkoholdunak % 13,2arekin,

eta jarraian Hotel, kafe eta jatetxeak, % 11,3, eta Garraioa, % 10,2 hartzen duena.

Garrantzia gutxien daukatenei dagokienez, Hezkuntzara (% 1,6) eta Edari alkoholdun eta tabakora (% 1,4) bideratzen diren gastu irteerak dira pisu gutxien daukatena Bizkaiko etxebizitzetako gastu orokorrean.

Bizkaiko etxebizitzetako batez besteko gastua ez da aldatu 2016 urtearekiko, baina ezberdina izan da kategoria bakoitzak izan duen bilakaera. Nabarmentzekoa da Osasungintzako gastuak izandako igoera handia, % 30 gehiago. Urrunetik jarraitzen dio Garraioko gastuan emandako % 10,5eko igoerak eta % 8ak Altzari, etxeko tresneria eta ohiko kontserbazio gastuetan. Era berean, % 5,2 hazi da Hezkuntzari bideratutako aurrekontua.

Hala ere, % 16,6 murriztu da edari alkoholdun eta tabakoari zuzendutako gastua, eta % 5,4ean murriztu da Etxebizitzetako ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiena. Gainera, Elikagai eta edari ez-alkoholdunetara bideratutako zatia % 1,7 jaitsi da, eta Jatetxe eta hotelena % 1,5.

Kontsumo adierazleak

	% 2017/16
Etxebizitzetako kontsumoa	% 0,0
Txikizkako merkataritzaren salmenta indizea	% 0,5
Kontsumo salneurriak	% 1,0

Bizkaiko datuak.
Iturria: Eustat. Famili Aurrekontuen eta KPIaren Inkesta (INE).

Etxebizitzetako kontsumo gastuaren egitura



Datos de Bizkaia. Ponderaciones del IPC, en %.
Fuente: Eustat. Estadística de Gasto Familiar.

Sektorearen salmentak

2017. urtean Bizkaiko merkataritza sektorearen salmentek joera positiboa izaten jarraitzen dute % 1,2 hazita, nahiz eta ez izan aurreko urtean bezain bizia (%3), eta laugarren urtez hazi da jarraian. Datu positiboa dator bai handizkako merkatarizatik, % 1,4 hazita, zein txikizkako merkatarizatik, % 0,5 hazita.

Txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen hazkundea ekarri du indize honen bi ezaugarriren hobekuntzak. Alde batetik, elikadurako merkatarien salmentak igo egin dira % 0,3, eta elikadurakoak ez diren produktuen salmenta % 0,9 hazi da.

Beren aldetik, automozio erregaien salmentak % 1,4ko jaitsiera jasan du, aurreko urtean izandakoa baino baxuagoa (% -7).

Bizkaiko merkataritza sektorearen enplegua balio positiboetan mantentzen da hirugarren urtez jarraian, % 0,6 hazita.

Bizkaian automobilen matrikulazioak joera positiboa izaten jarraitzen du eta 19.873 matrikulaziora heldu da guztira 2017an, 2016an erregistratutakoak baino % 1,9 gehiago. Matrikulatutako 100 ibilgailutik 68 erabilera partikularrekoak dira; baina atal honetako matrikulazioak % 1,5 jaitsi dira azken urtean.

Igoera enpresei lotutako matrikulazioek ekarri dute, % 11,3 hazita. Bizkaian atal honek hartzen du matrikulazio guztien % 30a.

Gainerako matrikulazioak biltzen dituen atalak ez dauka ordezkari esanguratsurik, % 2a, eta murriztu egin da hau ere, kasu honetan % 11,7.

Merkataritza sektorearen salmentak

	2016	2017	% 2017/16
Salmenta indizea	90,5	91,7	1,2
Txikizkako merkataritza	89,9	90,4	0,5
Elikadura	93,9	94,2	0,3
Gainerako produktuak	88,4	89,2	0,9
Automoziorako erregaiak	80,0	78,9	-1,4
Handizkako merkataritza	89,3	90,5	1,4

2017ko datuak behin behinekoak dira. Iturria: EUSTAT.

Automobilen matrikulazioa

	2016	2017	% 2017/16
Partikularrak	13.693	13.485	-1,5
Enpresak	5.451	6.065	11,3
Bestelakoak	366	323	-11,7
GUZTIRA	19.510	19.873	1,9

Iturria: Faconauto.

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Bilbao Observatorio

Turismoa

5

Turismo Jarduera

Bilboko Turismo jarduera
Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak
Itsas gurutzaldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

Bilboko Turismo jarduera

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3
 Itsas gurutzaldietako turismoa

Turismo jarduera | Bilboko Turismo jarduera

Bilboko turismo jarduerak Eustatek egindako Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestak erakusten du Bilbon 2017an 74 establezimenduko hotel eskaintza dagoela Bilbon, hiru izar eta gehiagoko 23 hotel eta izar bat edo biko 53 hotel edo ostatu. Guzti hauek urtean egun batez zabaldu dira, gutxienez.

2017an Bilbok handitu egin du hotel eskaintza.

Bilbok urte honetan zehar bost establezimendu gehiago lortu ditu 2016an baino, izar bat 1 eta 2 izarreko hotel eta ostatuei dagozkienak guztiak. Honek esan nahi du hiriak egunean 7.891 tokiko batez bestekoa eskaintzeko ahalmena duela. Maila apalagoko hoteletan soilik igo dira tokiak, 1.687 izatera helduta, 2016. urtean eskainitakoak baina 92 gehiago.

Hotel egoitza guztiak hartuta 4.049 gela daude eskuragarri Bilbora heltzen diren bisitariek gozatu ditzaten. Guztien % 78,6a maila altuagokoen taldeari dagokio, hiru izar edo gehiagokoei. Gainerakoa, % 21,4a, izar bat edo biko hotel eta ostatuek hartzen dute.

Hiribilduko hotel establezimenduek 104 toki dituzte batez beste. Kopuru hau 270 tokikoa izateraino igotzen da maila altuko hoteletan, eta 32koa izateraino jaitsi izar bat eta biko hotel eta pentsioen artean.

Ostatu ematearen ekonomia jarduerak, turismoari lotuak, % 8,3 hazi dira aurreko urtearen aldean. 2016an 133 lizentzia aktibo izatetik 144 izatera igaro dira 2017an. Azken urte honetan mantendu egin da Bilbon "Hotel eta motelen" kopurua. Hazi egin dira "Hostal eta ostatuak" eta "Gainerako ostatatze lizentziak", hazkunde nabarmenekin, % 12,5 eta % 24,1, hurrenez hurren. Aldiz, % 13,3 murriztu da "Fonda" kopurua.

Hotel egoitzen eskaintza

	2016	2017	% 2017/16
Egoitzak denera	71	74	4,2
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	23	23	0,0
Izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuak	48	53	10,4
Tokiak eguneko, denera	7.817	7.891	0,9
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	6.222	6.204	-0,3
Izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuak	1.595	1.687	5,8
Gelak eguneko, denera	4.010	4.049	1,0
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	3.146	3.141	-0,2
Izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuak	864	908	5,1

Iturria: Eustat.

Ostatatze jarduerak (lizentziak)

	2017	2017	% 2017/16
Ostatatze lizentziak guztira	133	144	8,3
Hotel eta motelak	41	41	0,0
Hostal eta ostatuak	48	54	12,5
Fondak	15	13	-13,3
Gainerakoa	29	36	24,1

Iturria: BFA (Ekonomia-Jardueren Gaineko Zerga).

Bilboko Turismo jarduera

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas gurutzaldietako turismoa

Turismo jarduera | Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Bidaiari sarrera

Bilbon hazi egin dira bidaiarien sarrera eta hoteletan igarotako gauak.

Bilboko hotel egoitzei lotutako turismo jarduerak bilakaera positiboarekin amaitu du 2017. urtea, 2016aren aldean. Urtean zehar 913.006 bidaiari sarrera erregistratu dira denera eta 1.749.402 gau igaro dituzte hirian. Kopuru hauek % 4,0 eta % 3,5eko urte arteko igoerak erakusten dituzte, hurrenez hurren. Datu hauek gainditu egin dute historian inoiz lotutako datu hoberena, 2016an lortutakoa, eta beste urte batez kokatzen dute Bilbo gaur egungo helmuga turistikoa gisa.

Jatorria


Jatorriaren arabera, 2017an zehar Hiribilduko hoteletan ostatu hartutako turistaren erdia baino gehiago espainiar estatukoak dira (% 56,3). 513.975 bidaiari izatera heldu dira, aurreko urtean erregistratutakoak baino % 0,3 gutxiago, 1.474 gutxiago datu absolutuetan.

Espainiar estatutik datorren turismoa da Bilbora bidaiari gehien bidaltzen duena.


Espainiar Estatutik datozenen artean kopuru handiena Madrilgo Erkidegotik datozen bidaiariena da, estatutik etorritakoen laurdena baino zertxobait gehiago hartzen dutelarik, % 30,3a. Madrilarrak EAEtik etorritakoen aurretik kokatzen dira, azken hauek estatukoak % 15,5a hartzen dute eta. Jarraian Kataluniatik (% 14,9), Andaluziatik (% 9,3) eta Valentziako Erkidegotik (% 4,4) etorritakoak daude.

Estatuz kanpotik etorritako bidaiariak, bestalde, % 1,0ko hazkundera izan dute, oso joera positiboa. 2017. urtean zehar 36.633 bisitari atzerritar gehiago zenbatu dira 2016an baino, eta 399.031 izan dira guztira. Frantzia da jatorriko herrialde nagusia, guztien % 14,8a hartuta, Alemania (% 10,7), Erresuma Batua (% 10,3), AEB (% 8,8) eta Italiaren aurretik (% 7,3).

Bidaiari sarreren bilakaera



Iturria: Eustat.



Iturria: Eustat. Bertan egina.

Bilboko Turismo jarduera

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas gurutzaldietako turismoa

Turismo jarduera | Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Igarotako gauak

Bilboko hotel establezimenduek 2017an zehar guztira 1.749.402 gau igaro direla erregistratu dute. Datu honek % 3,5ean hobetzen du aurreko urtean lortutako kopurua eta 59.596 gau gehitu ditu termino absolutuetan. Igarotako gauen % 54a Espainiako Estatutik datozen bidaiariei dagokie, 2016an baino % 2,4 gutxiago. Estatz kanpotik etorritako turistek igarotako gauak igo egin dira, kasu honetan % 11,4 gehiago, 82.466 gau gehiago aurreko urtearen aldean.

Igarotako hamar gauek zortzi 3 izar eta gehiagoko hoteletan izan dira.


Hotelen kategoriarri erreparatuta, igarotako gauen % 77,6a 3, 4 eta 5 izarreko hoteletan izan dira 2017an zehar. Maila apalagoko hotel eta ostatuek gau kopuru txikiagoa daukate baina, hala ere, urte arteko hazkunde handiagoa erakusten dute, % 9,9a, kategorialtuagoko establezimenduen % 1,8ko hazkunderen aldean.

Bilboko hotel egoitzetan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia 1,92 egunekoa da, aurreko urtean lortutako datuaren oso antzekoa. Estatz kanpoko bisitariek gehiago luzatzen dute egonaldia hiribilduan, 2,01 eguneko batez bestekoarekin, eta espainiar estatukoek 1,84 egun igarotzen dituzte soilik. Lolekuen okupazio tasa hazi egin da, % 60,7koa izateraino hiribilduko establezimenduen batez besteko datua.

Batez besteko egonaldia eta lolekuen okupazio tasa			
	2016	2017	% 2017/16
Batez besteko egonaldia	1,92	1,92	0,0
Okupazio tasa (%)	59,1	60,7	1,6

Iturria: Eustat

Bidaiariek igarotako gauen bilakaera



Iturria: Eustat.

Bidaiariek igarotako gauak, jatorriaren arabera

	2016	2017	% 2017/2016
Bidaiariek igarotako gauak	1.689.806	1.749.402	3,5
Espainiar Estatukoak	969.417	946.547	-2,4
Estatuz kanpokoak	720.389	802.855	11,4
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	1.334.116	1.358.457	1,8
Izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuak	355.690	390.945	9,9

Iturria: Eustat.

Bilboko Turismo jarduera


Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas gurutzaldietako turismoa

Turismo jarduera | Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Datuak hiriburuka

2017. urtean hobetu egin da turismo jarduera hiru euskal hiriburuetan, aurreko urtearen aldean. Bilbok hartzen ditu hiru hiriburuetan emandako bidaia sarreren eta igarotako gauen erdiak ia, guztien % 49,2 eta % 48,7, hurrenez hurren. Donostia da bi gaueko batez besteko egonaldia gainditu duen bakarra, zehazki 2,01, eta hazi egin da igarotako gauetan eta bidaia kopuruan. Gasteizek, bere aldetik, hazkunde handiena izan du bidaia-erietan dagokienez, % 6,2, baina hiru hiriburuetatik batez besteko egonaldi baxuena dauka (1,82), aurreko urteko datua baino okerragoa (1,90).



Taula Sarrerak eta igarotako gauak hiriburuetatik hotel egoitzetan

	2016	2017	% 2017/2016
Bidaia sarrera euskal hiriburuetan	1.785.143	1.856.199	4,0
Gasteiz	284.889	302.565	6,2
Donostia	622.407	640.628	2,9
Bilbo	877.847	913.006	4,0
Igarotako gauak euskal hiriburuetan	3.497.960	3.594.909	2,8
Gasteiz	542.608	551.627	1,7
Donostia	1.265.546	1.293.880	2,2
Bilbo	1.689.806	1.749.402	3,5

Iturria: Eustat.

Bilboko Turismo jarduera


Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas gurutzaldietako turismoa

Turismo jarduera | Itsas gurutzaldietako turismoa

2017an igo egin da itsas gurutzaldiei lotutako jarduera.

2017. urtea amaitu da 61 itsas gurutzaldiko kopuru errekorrekin, % 19,6eko igoera aurreko urtearekiko. Hala ere, itsas bidaiarien kopurua 2016koa baino apur bat apalagoa da, 83.674koa, aurreko urteko 86.598 bidaiariren aldean. Hala, 2016ko gurutzaldi bakoitzaren 1.698 bidaiariko batez bestetik 1.372koa izatera igaro da 2017an.



Iturria: Bilboko Portua.

Bilboko Turismo jarduera

Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas gurutzaldietako turismoa

Biltzar eta bileretako turismoa

Bilbao Convention Bureau-ren esanetan, Bilbon 2017an zehar 1.367 bilera ospatu dira, % 21,1eko hazkundea izan du jarduerak aurreko urtearen aldean, 238 bilera gehiago termino absolutuetan.

Negoio turismoa % 21,1 hazi da 2016aren aldean.

Bileren % 73,7a jardunaldiak dira. Hau da, 2017an zehar 1.007 jardunaldi antolatu dira Bilbon, 112an gaudituz aurreko urteko datua eta % 12,5 hazita urte artean, nahiz eta pisu erlatibo apur bat galdu duen sektorearen jardueran. Biltzarren eta konbentzioen kopurua gehiago hazi da, eta oso era bizian, % 48,9 eta % 57,0ko hazkundeak erakutsiz, hurrenez hurren, 45 eta 81 bilkura gehiago, hurrenkera horretan.

Bilbon biltzarrak, konbentzioak eta jardunaldiak sortzen dituzten sektoreak nagusiki dira jarduera ekonomiko-merkataritzakoei loturikoak (% 22,75), eta baita medikuntza-osasungintzakoei (% 21,95) eta teknologikoei (% 21,73) ere. Gainerakoa banatu egiten da gizarte eta kulturako esparruaren (% 11,6) eta unibertsitateko esparruaren (% 5,3) artean.

2017an hiribilduan ospatu diren bilkurek guztira 242.169 ordezkari/parte hartzaile biltzea lortu dute. Kopuru hau 2016an lorturikoa baino apur bat altuagoa da eta hiriarentzako jarduera % 34,1 igotzea ekarri du, 61.545 biltzarkide gehiago jasotzea.

Udalerrian burututako bileren batez besteko iraupena 1,77 egunekoa izan da, 2016an baino % 4,7 gehiago.


Bileren urte sasoiari erreparatuta, maiatzetik ekainerakoa eta irailetik azarora bitartekoa dira jarduera gehien biltzen dutenak, bi epe hauetan elkartzen baita urtean zehar egindako 1.367 bileren % 58a. Alderantziz, udako hilabeteetan zehar biltzarren jarduera oso baxua da, uztaila eta abuztuko hilabeteetan bilera guztien % 5,8a burutzen da soilik.

Aurreko urteen gisara, biltzarren jarduerako jaitziera hau orekatu egiten da aisialdiko turismoarekin, udako garaietan jasotzen baitu hiribilduak bidaiari etorrera handiena.

Biltzar eta bilerak			
	2016	2017	% 2017/16
Bilerak	1.129	1.367	21,1
Biltzarrak	92	137	48,9
Konbentzioak	142	223	57,0
Jardunaldiak	895	1.007	12,5
Parte hartzaileak	180.624	242.169	34,1
Batez besteko iraupena (egunak)	1,69	1,77	4,7


Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Ordezkarien bilakaera



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Bilkurak eta turismoa alderatuta urte sasoiaren arabera Bilbon



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Bilbao Observatorio

Informazioaren Gizartea eta Berrikuntza

6

Informazioaren gizartea Bilbon

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak

Unibertsitatea ikerketa iturri

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak


Informazioaren gizartea Bilbon

Europako Berrikuntza Adierazleen Panelak -European Innovation Scoreboard (EIS) 2017)- Europar Batasuneko herrialdeak sailkatzen ditu beren ekonomiek garatzen dituzten ikerketa, garapen eta berrikuntzako jardueren arabera eta horretarako daukaten gaitasunaren arabera.

Euskal A. E. 0,48 puntura heldu da, eta bi ehunetara gelditu da EB-28ko batez bestekotik, 0,50ean dagoena. Honek E.A.E. berrikuntza altua daukaten herrialdeen multzoan kokatzen du, Europar Batasuneko herrialdeen %9 0aren gainetik dagoen batez bestekoarekin, zehazki % 95a.

Euskadi, gainera, nabarmendu egiten da Europako batez bestekoaren aldean "Marko baldintzak" blokean. Berrikuntzaren hiru dimentsio hartzen ditu bloke honek: giza baliabideak, ikerketa sistema erakargarriak eta berrikuntzarako lagungarria den ingurunea. Lehen atalean prestakuntza eta heziketa altuko lan indarra nabarmentzen da, bigarrenean sare zientifikoaren nazioarteko lehiakortasuna, eta hirugarrenean abiadura handiko banda zabal sareak ezarri izana eta aukeretan oinarritutako ekintzailtza.

Europako Berrikuntza Panela EIS 2017. Euskal A. E. eta EB-28



Iturria: Eustat. Berrikuntza Adierazleen Panela (EIS). 2017ko rankinga.

Informazioaren gizartea eta enpresak

Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Informazioaren gizartea Bilbon | Enpresak eta Informazioaren gizartea

Internetaren sarrera enpresa bilbotarretan ehuneko 0,8 puntu hazi da 2016. urtearen aldean, enpresa guztien % 88,4ra heltzeraino. Hamar enplegu edo gehiagoko enpresen kasuan, Sarerako Sarbide maila % 97,8koa da jadanik.

Bilboko enpresen % 88,4ak Internetarako sarbidea dauka.

Internetera konektatzeko modu nagusiak dira ADSL, kable edo zuntz optiko bidezko banda zabala eta banda zabaleko konexio mugikorra. Zehazki, 2017an ADSL bidez konektatzen da internetera sarbidea daukaten eta hamar behargin edo gehiago daukaten enpresen % 69,9a. Hiribilduan konexio mota honen erabiltzaile kopurua murrizten doa sarbide teknologia berrien mesedetan, izan kable edo zuntz optiko bidezko konexioak (% 77,4, aurreko urteko % 72aren aldean) edo banda zabal konexio mugikorrak (% 84,6, 2016ko % 84,3aren aldean).

Geroz eta handiagoa da beste teknologia ekipamendu aurreratuen txertaketa, adibidez, sare informatiko finkoak, wirelesa, funts transferentzia elektronikoen sistema informatikoak eta intranet edo extranet sareak. Izan ere, 2017an Hiribilduko 10 behargin eta gehiagoko enpresen % 93,4ak dio sare informatiko bat ezarria daukala eta haien % 80ak adierazi du hariarik gabeko sare bat dela.

Internetera sarbidea daukaten enpresen % 28,9ak salerosketa elektronikoa erabiltzen du, erosketak egiteko, nagusiki.

Lau enpresatik batek bere Intranet propioa dauka, % 69,0ak tamaina handiagokoen kasuan, eta % 48,5ak extranet bat dauka zabaldua enpresako muga fisikoetatik harago.

2017an sarera sarbidea daukaten enpresen % 28,9ak salerosketa elektronikoko operazioak egiten ditu, erosketak eta/edo salmentak, internet bidez. Zehazki enpresen % 26,7ak erosketak egin zituen, eta % 8,0ak soilik erregistratu zituen online salmentak. 10 behargin eta gehiagoko enpresen kasuan, ehunekoak aldatu egiten dira. Enpresen % 24,6ak erosketa elektronikoa burutu ditu eta % 9,3ak salmentak.

Internetera sarbidea daukaten 10 behargin eta gehiagoko enpresen % 89,0ak webgunea dauka

EUSTATEk emandako datuek erakusten dute azken urteetan zehar egonkortu egin dela interneten presentzia daukaten enpresa bilbotarren kopurua, eta baita hauek egiten duten erabilera Sareaz eta bitarteko elektronikoez. Zehazki, 2017an, Bilbon 10 behargin edo gehiago daukaten enpresen % 89,0ak dauka webgune propioa. Bertan eskaintzen dituzten zerbitzuen artean nabarmentzen dira enpresaren informazio orokorra (% 98,4) eta produktu eta zerbitzuen zerrenda (% 69,5).

Teknologi ekipamenduak Bilboko enpresetan (%)

	2016	2017
Internetera sarbidea daukaten enpresak	87,6	88,4
10 enplegu edo gehiagokoak	97,7	97,8
Webgunea daukaten enpresak	56,3	56,0
10 enplegu edo gehiagokoak	90,5	89,0
Salerosketa elektronikoa burutzen duten enpresak	29,3	28,9
10 enplegu edo gehiagokoak	28,2	28,6
% Erosketak egiten dituzten enpresak	25,8	26,7
10 enplegu edo gehiagokoak	24,5	24,6
% Salmentak egiten dituzten enpresak	9,1	8,0
10 enplegu edo gehiagokoak	7,6	9,3

Iturria: Informazioaren Gizartea Enpresetan Inkesta, Eustat.

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Informazioaren gizartea Bilbon | Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Bizkaiko biztanleriaren artean teknologi ekipamenduak etengabeko hazkundea izaten ari dira, nahiz eta guztiak ez diren era berean eta intentsitate berarekin hazten ari. Beste gizarte aurreratu batzuetan gertatzen den bezala, teknologi ekipamenduak geroz eta presentego daude etxebizitzetan. Gailu multzo zabal eta anitza dago etxebizitzetan, eta etengabe ordezkatzen doaz batzuk besteengatik.

Bizkaiko lurraldeari dagozkion datuen arabera, 2017. urtean PDA/Tableta/Pocket PCa daukaten pertsona kopuruaren hazkundea nabarmentzen da (% 11,5). Hazkundea eman da, baita ere, PC bat daukaten pertsonen artean. 2016an 376,6 mila izatetik 408,8 mila izatera igaro dira 2017an. Hazkunde xumeago bat mantendu dute internetera sarbidea daukaten horien artean (825,4 mila pertsona) eta etxean posta elektronikoa daukatenean (780,0 mila).

Urte honetan zehar ere ikusi da nola egonkoritu den telefono mugikorra edo ordenagailu eramangarria daukan 15 urte eta gehiagoko biztanleria, 950,2 mila eta 577,0 mila, hurrenez hurren.


Internetaren erabilerari dagokionez, kontutan hartzeko lehen ezaugarria da 15 urte eta gehiagoko Bilboko biztanleen % 73,0a sarearen erabiltzailea dela 2017 amaieran. Datu honek ehuneko 0,3 puntuko igoera xumea adierazten du aurreko urtearen aldean.

Bilbon bizi diren 15 urte eta gehiagoko pertsonen % 73,0a Interneteko erabiltzailea da.

Internetera sarbidea altua izan arren udalerriko biztanleen artean, oraindik ere nabari da eten digitala teknologia honen erabileran sexuaren arabera. Zehazki, 2017an, Bilbon bizi diren gizonezkoen artean Interneta erabili dutenen ehunekoak (% 76,1) ehuneko 5,7 puntutan gainditzen du emakumezkoen batez besteko konexio maila (% 70,4). 2016an, Internetaren erabilerako genero banaketa hau ehuneko 7,4 puntutan kokatzen zen.

Erabilitako zerbitzuen rankingean lidergoa posta elektronikoak dauka. Ondoren daude ondasun eta zerbitzuen kontsulta, komunikabideen edizio digitalei bitak eta aisialdiko zerbitzuak.

Teknologi ekipamendu nagusiak Bizkaiko etxebizitzetan (15 urte eta gehiagoko biztanleria, milaka).



Iturria: Informazioaren Gizartea Familietan Inkesta, Eustat.

Internet erabiltzen duten biztanleak (% 15 urte eta gehiagoko biztanleak)

	2016	2017
Guztira	72,7	73,0
Emakumezkoak	69,3	70,4
Gizonezkoak	76,7	76,1
Eten digitala (p.p.)	7,4	5,7

Iturria: Informazioaren Gizartea Familietan Inkesta, Eustat.

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Bizkaian 9,1 mila enpresa berritzaile daude, Eustatek argitaratutako azken datuen arabera. Kopuru hau % 3,2 jaitsi da aurreko urtearen aldean. 10 behargin edo gehiagoko enpresei dagokienez, kopurua ez da aldatu eta 1,6 mila enpresa berritzaile mantendu dira probintzian.

Datu hauek erakusten dute, jaitsiera xumea izan arren, borondatea dagoela mantentzeko Bizkaiko lurraldeak eta Bilboko hiriak ematen dieten bultzada ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+B) jarduerari, eta hauek garatzeko enpresen eta pertsonen prestakuntzari ematen zaio babesa.

Bilbon berrikuntzan egindako gastua
267,9 milioi eurora heldu da.

I+G+B-ari bideratutako esfortzu ekonomikoa agerian geratzen da ikusten dugunean 10 behargin edo gehiago dauzkaten Bilboko enpresek 267,9 milioi euro bideratu zituztela guztira 2016an berrikuntza jardueretara.

I+G jarduerari dagokienez, guztira Hiribilduko 124 enpresek adierazi dute jarduera mota hauek garatu izana 2016an zehar, aurreko urtean baino % 28,7 gutxiago. Enpresek 3.964 behargin enplegatu zituzten guztira funtzio hauek garatzeko, eta horien % 66,2a (2.626) ikerketako langileen multzoari dagokio. Datu hauek tentuz hartu behar dira, Eustatek doikuntza bat egin duelako I+G burutzen duten enpresa eta establezimenduen oinarrian.

I+G jardueren garapenak 118,2 milioi euroko barne gastua eragin du, % 0,6ko igoera 2015aren aldean. Funtzen jatorriari erreparatuta, 52,2 milioi enpresei dagozkie, 49,1 milioi Administrazio Publikoari eta 12,3 milioi Unibertsitateari. Gainerakoa atzeritik eta Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuetatik (IAGEP) dator.

124 enpresa bilbotarrek garatu dituzte I+G
jarduerak, 118,25 milioi euroko gastuarekin,
2016. urtean.

Asmakuntza jarduerak 2017an zehar joera negatiboa izan dute 2016ko adierazleen aldean. Zehazki, 2017an guztira 2 patente eskaera erregistratu dira, 2016an baino 6 gutxiago. Era berean, 485 marka komertzial berri eskatu ziren (2016an baino % 20,6 gehiago), 9 baliagarritasun modelo, 6 diseinu industrial eta 64 izendapen komertzial.

Berrikuntza

	2016	2017	% 2017/16
Enpresa berritzaileak (milaka)	9,4	9,1	-3,2
10 enplegu eta gehiagokoak	1,6	1,6	0,0
Berrikuntza jardueretako gastua (milioika)	1.185,8	1.256,8	6,0
10 enplegu eta gehiagokoak	1.033,8	1.073,6	3,8

Iturria: Berrikuntza inkesta EUSTAT (Bizkaia).

I+G

	2015	2016	% 2016/15
Gastua I+G-n (milaka €)	117.484	118.214	0,6
I+G jarduerak dauzkaten enpresak (kop.)	174	124	-28,7*
I+G-ari eskainitako beharginak (kop.)	4.227	3.964	-6,2
I+G-ari eskainitako ikerlariak (kop.)	2.825	2.626	-7,0

*Datua tentuz hartu behar dira Eustatek enpresen oinarrian egindako doikuntzagatik.

Iturria: I+G inkesta, Eustat.

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

	2016	2017	% 2017/16
Patenteak	8	2	-75,0
Markak	402	485	20,6
Baliagarritasun modelook	9	9	0,0
Diseinu industrialak	8	6	-25,0
Izendapen komertzialak	49	64	30,6

Iturria: OEPM.

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera trinkoak bezala ezagutzen den "sektorea" osatzen dute Informazio eta komunikazio zerbitzuek (telekomunikazioak, zerbitzu informatiboak, ikus-entzunezko zerbitzuak, informaziokoak eta edizioakoak), finantza eta aseguru zerbitzuek, eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek (zuzenbide zerbitzuak, kontularitza zerbitzuak, aholkularitza, arkitektura eta ingeniaritza, I+G-koak, publizitatea, marketina, etab.).

2017a amaitzean, 28.100 pertsona zeuden sektore honetan afiliatuta Bilbon (% 16,0ko parte hartze erlatiboarekin enplegu osoaren gainean). Aurreko urtearen aldean % 0,5eko hazkunde xumea eman da ezagutzako enplegu trinkoan.

Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoaren azpisektoreak sortzen ditu sektoreko hamar enplegutik lau baino gehixeago (% 44,0), eta hauen erdia (% 50,2) zuzenbide, kontularitza eta aholkularitza zerbitzuei dago lotua (6.211 pertsona afiliatu).

Informazio eta komunikazio zerbitzuen multzoaren barruan, zerbitzu informatikoak nabarmentzen dira enplegu kopuru handiena daukan jarduera esparru gisa (4.806), eta finantza eta aseguru zerbitzuen azpisektorean enpleguaren % 61,1a finantza jarduerari dagokie (4.650 enplegu).


Azken urtean zehar enplegua hazi egin da Informazio eta komunikazioen azpisektorean (% 2,9) eta zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoenean (% 1,9). Alderantziz, datu negatiboa dator Finantza eta aseguru zerbitzuetatik, enplegua galtzen jarraitzen dute hauek (% -4,2).

Nabarmentzekoa da zerbitzu informatikoetan eman den enpleguaren hazkundera (% 6,0) eta, datu negatibo gisa, finantza zerbitzuetan enplegatutako pertsonen murrizketa (% -6,3).


8.152 establezimenduk garatzen dute beren jarduna profesional eta enpresen ezagutza trinkoko zerbitzuen sektorean 2017an, % 0,6ko hazkunde xumea izanda 2016. urtearen aldean. Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoaren multzoa da handiena 6.185 establezimendurekin eta % 0,8 hazi da. Beren aldetik, Finantza eta aseguru zerbitzuek, 1.701 negozio unitaterekin, % 2,4 galdu dute urtebetean. Azkenik Informazio eta komunikazio zerbitzuek 896 establezimendu daukate, azken urtean % 2,8 hazita.

Enpresa eta profesionalen ezagutza zerbitzu trinkoak.

Afiliatutako pertsonak



Enpresa establezimenduk



Year	2016	2017	% 2017/16		Year	2016	2017	% 2017/16
7.877	8.108	2,9	Informazio eta Komunikazioa	872	896	2,8		
848	823	-2,9	Telekomunikazioak	81	89	9,9		
4.534	4.806	6,0	Zerbitzu informatikoak	464	479	3,2		
2.495	2.479	-0,6	Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerbitzuak	327	328	0,3		
7.950	7.616	-4,2	Finantza eta aseguru zerbitzuak	1.097	1.071	-2,4		
4.964	4.650	-6,3	Finantzak	346	344	-0,6		
2.986	2.966	-0,7	Aseguruak eta laguntzaileak	751	727	-3,2		
12.145	12.376	1,9	Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoak	6.138	6.185	0,8		
6.037	6.211	2,9	Zuzenbide, kontularitza eta aholkularitza zerbitzuak	3.854	3.847	-0,2		
3.562	3.527	-1,0	Arkitektura, ingeniaritza eta I+G zerbitzuak	1.226	1.222	-0,3		
1.179	1.222	3,6	Publizitatea eta marketina	448	468	4,5		
1.367	1.416	3,6	Bestelakoak	610	648	6,2		

Iturria: Eustat. Ekonomia Jardueren Direktoria

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Unibertsitatea | ikerketa iturri


Bilboko Hiribilduak unibertsitate eskaintza garrantzitsua dauka. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), publikoa, Deustuko Unibertsitatea, pribatua, eta Mondragon Unibertsitatea, pribatua hau ere. Hauen presentzia oso baliotsua da Bizkaiko hiriburuarentzat. Unibertsitate hauen gune nagusienetako batzuk daude bertan. Hirian dagoen titulazio eskaintza nabarmenak erreferente gisa kokatu du Bilbo goi mailako ikasketetan. Azpiegitura eta baliabide aldetik geroz eta hobeto hornitua dago.

Eredu hauek erakusten dute Bilbok egindako apustua unibertsitateen bikaintasuna sustatzeko eta ikasketak ekoizpen ekonomiari hurbiltzeko. Argi daukate hiriak jokatu beharreko papera hiriburutza ekonomikoaren ardatz gisa, ezagutza trinkoko zerbitzu aurreratuetara bideratuta eta ekonomiari eta gizarteari lagunduz.

Ezagutza sortzaile gisa egiten duten lana eta enpresei eta gizarteari egiten dieten transferentzia gako garrantzitsuak dira hiriaren garapen ekonomikorako. Patenteen bidez neurtu daitezke unibertsitateek garatutako ikerketen emaitzak eta berrikuntza ekintzak. Beren egoera eta bilakaera aztertzeke adierazle egokia dira patenteak.

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratutako azken datuek, 2017 urteari dagozkionak, erakusten dute 38 eskaera egon direla patenteen erregistrorako. Aurrerapena izan da aurreko urtearen aldean, eta egonkortuz doa 2014. urtean abiatutako hobekuntza.

EHUk aurkeztutako patenteen bilakaera 2000-2017



Iturria: EHU ZENBAKITAN 2017.

Informazioaren gizartea eta enpresak

Informazioaren gizartea eta etxebizitzak

Unibertsitatea | ikerketa iturri

EHUK fakultate ezberdinak dauzka Bilbon, gaur egun hiriko gune ezberdinetan banatuta daudenak. 2017an, zehazki, Bilbon ikasten duten EHUko ikasleen kopurua 9.423koa da. Nabarmentzekoak dira, kopuruagatik, Ingeniaritza ikasketetan eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultatean matrikulatutako pertsonak. 3.936 eta 3.420 ikasle dauzkate, hurrenez hurren. Basurtuko Ospitalean Medikuntza Ikasketa Unitateak 276 ikasle dauzka, esperientzia ikasgeletako 342ez gain.

Euskal Herriko Unibertsitateak
9.423 ikasle dauzka Bilbon.

Bilbon Deustuko Unibertsitatearen Campusa Guggenheim Museoaren parean dago kokatuta, eta hainbat eraikinez dago osatua. Eraikin nagusia, Zuzenbide eta Letretako ikasketak ematen dira bertan, Deustu Business School eraikina, lehen "La Comercial" gisa ezagutzen zena, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea hartzen duena, ESIDE eraikinak ingeniaritzak irakasten dira bertan, eta Mendeurreneko Eraikina. Hauen aurrean dago Liburutegia-IIBZ (Ikaskuntza eta Ikerketarako Baliabide Zentroa), ibaiaren gainetik igarotzen den Aita Arrupe Pasabidearen bidez lotzen dena campusarekin.

Bilboko campusak 8.457 ikasle hartu ditu 2017. urtean. Gehiengoa gradu ikasketetako 6.268ak dira. Matrikula kopuruaren arabera jarraian datoz masterretako ikasleak (1.334) eta doktoretzetakoak (305). Ikasketa arautu ez ofizialetan parte hartzen duen ikasle kopurua 550ekoa da.

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2017
Bilbo EHU Campusa Guztira	9.423
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	3.420
G.E.T. Ingeniaritza	1.809
I.U.E. Teknikoa Industrial	1.707
I.U.E. Teknikoa Mehatze eta Herri Lanak	420
Medikuntza Irakasgunea (Basurtoko Ospitalea)	276
Esperientzia Ikasgelak	342
Master eta titulu propioak	1.449
Máster y títulos propios	1.485

Iturria: EHU ZENBAKITAN 2017.

Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2017
Deustuko Unibertsitatea	8.457
Gradu ikasketak	6.268
Masterra	1.334
Doktoretza	305
Ikasketa arautu ez ofizialak	550

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Bilbao Observatorio

Kultura eta kirola

Sarrera

Udal kultura jarduera

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoetako jarduerak

Liburutegiak

Kirola

Sarrera I

Dakiena soilik da aske, eta askeagoa da gehiago dakiena... Kulturak soilik ematen du askatasuna.

Miguel de Unamuno – Idazle eta Filosofoa

...kultura bakoitza maskor bat da, eta han entzundako ahotsek esaten digute garena eta izan ginena, ahaztu duguna eta izan gaitzkeena.

Carlos Fuentes - Idazlea

Fundazio Garaikidearen Kultura Behatokiak, Espainiar Estatuaren egoerari buruzko 2017ko azterketan, Estatu hiru garren hiri gisa kokatzen du Bilbo bere kultur eskaintzaren kalitate eta berrikuntzagatik.

Hala ipini du agerian urtero egiten duen galdeketa. Kulturako esparru ezberdinetako lehen mailako adituei egiten zaie galdeketa, sormen eta ekoizpen arloetan zein kudeaketa pribatu edo publikoan dabilzan.

Madril eta Bartzelonako eskaintzek soilik jaso dituzte Bizkaiko hiriburuak baino puntuazio altuagoak epaitutako bi esparruetan.

Behatokiak egindako galdeketa hau 2009. urtetik burutzen da, eta bere asmoa da adierazle multzo bat osatzea, ahalbidetuko duena aztertzea bai autonomi erkidego eta hiri ezberdinen kultura jarduerak, bai urteko kultur instituzio eta gertaera aipagarrienak eta baita kulturako aurrekontuen bilakaera ere.

Kultura Behatokiaren edizio honetan 362 lagunek hartu dute parte urteroko galdeketa bete duen adituen panelan. Haien balorazioetan 64 instituzio eta kultura jarduerak nabarmendu dituzte.

Kultura panorama onenaren Estatu mailako rankingean 3. postuan kokatu da Guggenheim Museoa, 2. postu igota aurreko urtearen aldean. Gainera, oraingo honetan, lehen hogeien artean dago Arte Ederren Museoa, 18. postuan. Atzetik, aipamenak jaso dituzte Bilbo BBK Live-ek, Azkuna Zentroak eta Bime-k.

Autonomi erkidego bakoitzean urtean zehar kultura arloan izandako onenaren 2017ko rankingean, ondorengoak izan da EAEren emaitza:

Kultur instituzio eta jardunaldien EAEko rankinga, adituen arabera. 2017

1	Guggenheim Museoa	Bilbo	56 %
1	Artium	Gasteiz	
3	Bilboko Arte Ederren Museoa	Bilbo	50 %
4	Donostiako Zinemaldia	Donostia	33 %
4	Azkuna Zentroa	Bilbo	
6	Jazzaldia	Donostia	28 %
6	Arriaga Antzokia	Bilbo	
8	Tabakalera. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa	Donostia	22 %
9	San Telmo Museoa	Donostia	
9	Koldo Mitxelena Kulturunea	Donostia	17 %
9	Gasteizko Jazzaldia	Gasteiz	
9	Donostiako Musika Hamabostaldia	Donostia	
13	Bilbo Arte	Bilbo	14 %

Estatu mailako rankinga estatu osoko adituen iritziekin osatzen da, eta erkidego bakoitzeko rankingak soilik erkidego horretako adituen iritzia erakusten ditu. Galdera ireki batekin emandako iritzia, izenik eman gabe, eta hamar instituzio edo kultura gertakari aipatu daitezke urteko nabarmenenak bezala. Puntuak ekimen bakoitza aipatu duten adituen ehunekoari dagozkie.

(1) Fundazio Garaikideak burutua, aditu talde bati galdeketa eginez. Talde hau kulturarekin lotutako ospe handiko profesionalak osatzen dute, eta baita administrazio publikoko kultur esparru eta instituzioetako arduradunek ere.

Udal kultura jarduera

2015ean Bilbo hautatu zuten Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen (HTGB) lehen Kultura Goi-bilera ospatzeko. “Kultura eta hiri jasangarriak” izenburu generikoa daukan marko honetan dokumentu bat garatu zen (“Kultura 21 Ekintza”), orientazioa emateko garapen jasangarrian lagunduko duten kultur politikak ebaluatu, diseinatu eta ezartzeko interesa duten hiriei.

“Kultura 21 Ekintza”-ren oinarria dira, alde batetik kulturaren 21 Agendaren esperientzia, eta bestetik, HTGB-k egindako lan jarraitua kultura eta garapen jasangarriaren arteko harremanari buruz. Hala, kide guztiek aho batez ulertzen dute kultura garapen jasangarriko laugarren pilare gisa (ulertuta mundua ez dagoela soilik ekonomia, gizarte eta ingurunearen erronken aurrean). Gauzak horrela, dei egiten diete hiriei:

- Kulturaren dimentsioa txertatzeko beren garapen politiketan.
- Sakonera handiko kultura politika bat garatzeko.
- Dimentsio kulturala politika publiko guztietan txertatzeko.
- Kultura jasangarritasunaren laugarren pilare izatearen ideia zabaltzeko, bereziki politikak diseinatzerakoan.


Ikuspegi honetatik agerian gelditzen da kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko lotura, bertako kultura sektoreen garapena sustatuz, adibidez: ondarea, sormena, kultur industriak, artea, turismo kulturala; eta defendatuz kulturak behar bezalako aitorpena jaso dezala politika publiko guztietan.

Bilbok onartu egin ditu erronka horiek eta aurrera doa bere konpromisoan, sormena eta kultur industriak tokiko garapen planaren erdigunean kokatzeko eta aktiboki elkarlanean aritzeko nazioartean esparru honetan.

“Funtsean kultura”.

Gainera, zehazki Udalarri dagokion eremuan, Bilbok sustatzen duen ideia zera da: kultura irekia, anitza eta hiri osoak parte hartzeko eta hiritar guztiek partekatzeke pentsatua. Hala, 2017. urtean zehar “Funtsean kultura” leloarekin hirian zehar ehun ekimen inguru zabalduta dira: antzerki, zine eta musika jaialdiak, literatura lehiaketa eta jardunaldiak, arte jarduerak, dibulgaziokoak, eta kultura eta aisialdi ondarearen eta programaren sustapeneakoak, beste proposamen batzuen artean.

Sei helburu nagusirekin, eta kultur programa oparo batekin hiri osoan zehar banatu dira 1.769 ekitaldi, eta 186.000 pertsonatik gora (liburutegietara joan diren 707.644ak zenbatu gabe) hurbildu dira bertara, kultura izan duten urteko 365 egunetan zehar.



Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Arte eszenikoei lotutako jarduerak presentek egon dira udalerrri osoan 2017. urtean zehar, programazio zaindu eta erakargarri baten bidez. Programazio honek, eszenaratzeko, Hiribilduak dauzkan hamaika ekipamendu eszeniko eta sei kontzertu aretoak eduki ditu. Guzti horietatik, Arriaga Antzokia, Euskalduna Jauregia eta Campos Eliseos Antzokia nabarmentzen dira programazio handiena edukitzeagatik, baina antzerkia, dantza eta musika presentek egon dira hiri osoan.

Antzerkiak, musikak eta dantzak 459.219 pertsona eraman dituzte Arriaga eta Euskaldunara 2017an.

ZineBi Dokumental eta laburmetraien Nazioarteko Zine Jaialdiaren 58. edizioa, Bilbo BBK Live, Bilbao BAD Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdiko antzerki eta dantza garaikideak, Txotxongiloen Nazioarteko XXXVI. Jaialdia, musika auzoetan Bilbo Distrito Jazz-ekin eta hiri osoko kaleak kulturarentzako oholtza gisa Kultura Kalez Kalerekin. Honetaz gainera Arriaga eta Campos Eliseos antzokien eta Euskalduna Jauregiaren antzerki eta musika programazio osoa, hiriak aurkezten duen kultur eskaintza zabalaren froga ukazina dira.

2017an **Arriaga Antzokian** 80 ikuskizun programatu dira. 215 ekitaldi izan dira, eta 133.489 ikusle erakarri dituzte guztira. Emanaldi bakoitzeko 621 ikusleko batez bestekoarekin, antzokiak 183 egunez zabaldu ditu atek aurten.


Eskainitako 80 ikuskizunetatik, 27 antzerki obrak izan dira, 7 dantza ikuskizun, 32 kontzertu, 7 opera, musikal 1 eta 6 jarduera anitz.

2017. urtean, **Euskalduna Jauregiak** luzatu egin du bere lidergoa Estatuko Kongresu Jauregien artean, 823 ekimen eta/edo emanaldi ospatuta bere instalazioetan.

Musika jarduerekin eta ikuskizunekin lotutakoek 368 emanaldi izan dituzte eta 325.730 ikusle bildu.

Antzerki ikuskizunek jarraitzen dute izaten emanaldi kopuru handiena daukaten jarduerak, 127 emanaldi 2017. urtean zehar. Nabarmentzekoak dira, baita ere, Orkestra eta Abesbatzen 78 kontzertuak, Opera denboraldia 20 emanaldirekin, 11 Ballet eta Dantza ikuskizunak, 4 Zarzuelak eta 128 Kontzertu eta Emanaldi anitz.

Bilbo Eszena – Antzerki baliabideen zentroa, Bilborock, 6 Pabiloia, hACERIA arteak, Kafe Antzokia, La Fundicion, Muelle 3 Dantza eta Kontainer Aretoarekin osatzen dira hiribilduko ekipamendu eszeniko eta kontzertu areto nagusienak.



Museoetako jarduerak

Fundazio Garaikidearen Kultura Behatokiak eskatuta, 362 aditu profesionalek balorazio bat egin eta ranking bat burutu dute 2017. urteko panorama kulturalaren onenari buruz. Bertan kokatu dute -lehen aldiz- Bilboko Guggenheim Museoa (zehazki Bill Violari buruzko atzera begirakoa) hirugarren postuan Estatuko kultura instituzio eta gertakarien artean. Bi postu igo ditu aurreko urtearen aldean, eta soilik gainditzen dute Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazionalak eta Pradoko Museo Nazionalak.

Guggenheim eta Arte Ederrek 1.637.598 bisitari bildu dituzte. |

XX. urteurrena ospatzen du Guggenheim museoak 2017an, eta ia 110 urte dauzka Arte Ederren Museoak, zaharrena izanik. Bi pinakoteka hauek artearentzako izen handiko bi gune izaten jarraitzen dute, Bilboko hiritarrek eta hiria bisitatzeko duten kanpotarren gozatzeko aukera daukatenak. Hiriaren museo eskaintza osatzen dute mespretxatzeko modukoak ez diren beste hamar museoak eta arte galeria kopuru aipagarriak.

Guggenheim Museoaren nazioarteko proiektio ukaezinari, Arte Ederren Museoako arte bilduma bikainari eta galerista ospetsuen ekimen garrantzitsuari esker, dudarik gabe Bilbok erakusketa edukien eskaintza plurala proposatzen jarraitu dezake, bisitariarentzat zein hiriburuko biztanleentzat.

Guggenheim Bilbo Museoa 2017an, bere XX. Urteurrenean, 1.322.611 pertsonako bisitari kopurura heldu da, horien % 62a atzeritik etorritakoak. Hauen artean nagusitzen dira, kopuruagatik, Frantziatik datozen bisitariak, nahikoa urrun Erresuma Batutik, Alemaniatik, AEBtatik eta Italiatik datozen bisitariengandik. Museoak hartzen dituen bisitarien % 21a Euskal Autonomi Erkidegotik dator, -gehienbat Bizkaitik- eta erdia baino gehiago dira (% 55a) Estatutik Museora hurbildutako bisitarien artean.

Bill Viola: Atzera begirakoa, 710.995 pertsonen ikusi dute eta aldi baterako erakusketa bisitatuena izan da 2017. urtean. Honekin batera nabarmentzen dira, publikoaren artean izandako onarpenagatik, Paris Mende Amaiera. Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak eta George Baselitz: Heroiak aldarrikatzailea.

Bilboko Arte Ederren Museoak 2017an 314.987 bisitari hartu ditu, ehun urte baino gehiago dauzkan museo honen historiako kopururik altuena. Gehiago hazi dira atzeritik datozenak, guztien % 20,3a izateraino. Pinakotekaren gainerako bisitarien % 61a EAEko leku ezberdinetatik dator.

Alicia Koplowitz Bilduma- Omega Capital Taldea erakusketa, 139.615 bisitarekin, eta Renoir: Intimitatea atzera begirakoa izan dira bisitatuena.

Euskal Museoa, Arte Sacro-Eleizmuseoa, Arkeologi Museoa, Bilboko Berreginen Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, ezagunen artean, dira Hiribilduko museo eskaintza osatzen dutenak.

Museoak	2016	2017
Museo kopurua	12	12
Guggenheim	1.169.404	1.322.611
Arte Ederrak	269.977	314.987

Iturria: Guggenheim Bilbo Museoa, Arte Ederren Museoa.

Liburutegiak

Zerbitzu publikoen eremuan, Bizkaiko Foru Liburutegia eta Bilboko udal liburutegien sare osatu eta banandua erakusgarri nagusiak dira, eta argi azaltzen dute udalerriko hiritarren eskura dagoen eskaintza zabala liburutegi, hemeroteka eta dokumentazio eta ikerketa zentroei dagokienez.

Bilboko liburutegi publikoek 707.644 bisita jasotzen dituzte urtean.

Hala, Bidebarrietako Liburutegi Nagusiaren jarduerari gehitu behar zaizkio Begoña, Deustu, Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrotzako barrutietan banatutako 14 udal liburutegiak. Eta Bilbo Musika batu behar da, zehazki musika funtsetan espezializatutako liburutegi gisa.

2017an, % 1,6 hazi da liburutegiko txartela daukaten erabiltzaileen kopurua, % 7,1 hobetu da liburutegietara fisikoki hurbiltzea eta hazi egin da, baita ere, liburutegiek gordetzen duten bildumaren tamaina, kasu honetan % 5ean. Era berean, maileguen murrizketa egiaztatu da.

Bidebarrietako Liburutegi Nagusiak dauka udal liburutegi sareko funts bibliografikoen % 25a. Hiribilduaren Alde Zaharreen kokapen pribilegiatua dauka, eta 2017. urtean zehar udal liburutegietara egindako bisiten % 43,4a hartu du.

Arlo publikoan bereziki esanguratsua da Bizkaiko Foru Liburutegiak daukan funts bibliografiko eta hemerografikoa, 300.000 liburukitik gertukoa. Honen barruan 46 inkunabile eta 699 eskuizkribu nabarmentzen dira.

Baliabideen sarea beste gune bibliofilo batzuekin optimizatzen da. Museo azpiegiturei lotutakoak (Arte Ederrak, Guggenheim, Euskal Museoa...), unibertsitateari lotuak, Deustuko Unibertsitatearen Liburutegia, esaterako, inprimatutako milioi bat liburukitik gertu daukana, eta beste baliabide mota batzuk (Alhondigako Medioteka edo Azkue Liburutegia, besteak beste).

Liburutegien adierazleak

	2016	2017
Berataratzea	660.464	707.644
Maileguak	287.329	275.811
Bildumaren tamaina	461.206	484.246
Txartela daukaten erabiltzaileak	115.352	117.225

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Liburutegien adierazleak (2017)

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
GUZTIRA	707.644	117.225	275.811	484.246
Bidebarrieta	306.959	39.425	90.579	122.851
Deustu	91.128	15.979	34.356	36.114
Begoña	69.817	16.215	37.941	41.846
San Inazio	41.532	8.283	19.048	23.265
Errekalde	31.484	9.517	11.941	17.855
Zorrotza	30.825	5.013	14.525	15.872
Ibaialde	26.934	1.963	5.993	9.633
Otxarkoaga	26.787	3.715	9.431	16.428
San Frantzisko	20.882	4.525	11.377	17.502
Castaños	19.166	2.405	8.127	7.443
Bilbo Musika	12.604	1.039	3.318	10.415
Irala	10.451	2.752	7.031	11.854
Zurbaranbarri	9.495	2.891	7.187	9.172
San Adrian	5.874	2.406	5.563	8.570
Zabala	3.673	1.066	4.360	5.434
Buia	33	31	20	1.633
Gordailua			5.014	128.359

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Kirola |

Azken urteetan, baita 2017an ere, udalerriko kirola ikuspegi osagarri batetik ulertu du Bilbok. Alde batetik, izaera oso ezberdineko kirol ekitaldiak sustatuz, hiriaren irudia bultzatu eta ospea ematen diotenak eta hiriko ekonomia sarearen esfortzua babesten dutenak. Bestalde, kirolaren praktika bere jatorrizko zentzuan, gizartearen ongizate adierazle gisa, bizi kalitate adierazle gisa, hiritarren artean egunerokoan barneratutako praktika gisa.

80.869 bilbotarrek egiten dute
kirola udal kiroldegietan.

Bigarren dimentsio honi laguntzeko Bilbok kirol instalazio eta ekipamenduen sare zabala dauka. Bertan adin eta gizarte maila guztietako hiritarrek eskuragarri daukate kirolaren praktika.

Eta hiria eta bizi kalitatea hobetzeko eremu honetan, 2017an Bilborako Lehen Kirol Plangintza Estrategikoa aurkeztu da, udalerrriaren garapenean kirolak jokatzeko duen papera ulertzeko asmoarekin eta etorkizuneko estrategiak aurreratu eta garatzeko.

Kalitatezko instalazioak daude hirian. Adibidez, Bizkaia Frontoia, Bilbo Arena estadioa, La Casillako Pabiloia edo San Mames Barria. Instalazio hauetaz gain, 10 udal kiroldegi daude, Azkuna Zentroko jarduera fisikoen zentroa, zazpi futbol zelai, bi frontoi ireki eta arraun pabiloi bat. Eta baita kirol ekipamendu kopuru garrantzitsu bat ere, kanpoaldean publikoki erabiltzeko.

Izan ere, udal kirol eskaintza soilik zenbatuta, Bilbon 79 kirol diziplina egin daitezke, eta leku egiten zaie bai gehien praktikatzeko direnei eta baita gutxiengoan daudenei ere, gehien eskatzen dutenei eta eskuragarrienei.

2017. urtean zehar 80.869 izan dira kiroldegi hauek erabili dituzten abonudun pertsonak, 38.793 emakume eta 42.076 gizon.

Bilbon, gainera, 2017an askotariko kirol ekitaldiak ospatu dira. Batzuk izaera profesionalekoak eta beste batzuk herrikoiagoak, hiritarren parte hartze orokorra sustatzera bideratuak. Batzuen eta besteen artean nabarmentzekoak dira, garrantziagatik: "Bilbo Hiribildua" Atletismoko Nazioarteko Bilkuraren XVII. Edizioa, Euskal Herriko bizikleta Itzulia, Bilbo Night Marathon-aren bederatzigarren edizioa, Artxandara Igoera-Martxa Herrikoa, Bilbo Triathlon-a, Spartan Race, gurpil aulkidun saskibaloia Bilbo 2017 Euroleague-a, edo VII. Bilboko Bandera-San Miguel Traineru Liga.

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Etxebizitza



Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Higiezin eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Etxebizitzen transakzioak
Etxebizitzen alokairua
Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak



Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

- Etxebizitza berria eta erabilitakoa
- Etxebizitzen transakzioak
- Etxebizitzen alokairua
- Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Etxebizitza | Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika

Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikaren azken eguneraketaren arabera, Bilbok 2016an 162.962 etxebizitzako parkea dauka. Horien % 99,9a familia etxebizitzak dira eta % 0,1a soilik dagokio egoitza kolektiboen kategoriarri.


Bilbok 162.747 familia etxebizitzako parkea dauka, 51,1 urteko batez besteko adinarekin.

Hiribilduko familia etxebizitzen % 85a lehenengo etxebizitza gisa dago katalogatua. Gainerako % 15a lehenengoak ez diren etxebizitzek osatzen dute. Bilbon lehen etxebizitza ez diren presentzia EAEn eta hiru lurraldeetan lortutakoaren azpitik dago, eta baita Donostian eta Gasteizen lortutakoaren azpitik ere.

Hiribilduko familia etxebizitzen % 55a 20 etxebizitza baino gehiagoko eraikinetan dago, eta % 1,2a soilik da familia bakarrekoa edo bikoia. Egiturazko ezaugarriari dagokienez, familia etxebizitzen batez besteko adina 51,1 urteko da eta batez besteko azalera erabilgarria 82 m²-koa. % 72ak 4 eta 5 gela artean dauzka, % 68,7ak adierazi du komun bakarra daukala eta % 83,5ak igogailu bat dauka gutxienez.

Egoitza kolektiboak dira Hiribilduan dauden zahar-etxeak, babes-etxeak eta/edo komentuak, hotelak, pentsioak eta antzeko beste ostatuak. Bilbon 215 daude guztira, eta hutsik dago hauen % 15a.

Familia etxebizitzen ezaugarri nagusiak



Euskal A. E.ko etxebizitzak lurraldeka eta motaren arabera. 2016/11/01

	Etxebizitzak Guztira	Familia etxebizitzak			Egoitza kolektiboak		
		Guztira	Lehenak	Gainerakoa	Erabilia	Erabilia	Hutsik
Euskal A. E.	1.049.370	1.048.281	890.758	157.523	1.089	905	184
Araba	164.196	163.945	136.026	27.919	251	197	54
Gipuzkoa	341.938	341.620	290.096	51.524	318	272	46
Bizkaia	543.236	542.716	464.636	78.080	520	436	84
Gasteiz	117.704	117.530	103.855	13.675	174	142	32
Donostia	91.596	91.465	76.933	14.532	131	112	19
Bilbo	162.962	162.747	144.593	18.154	215	182	33

Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika, 2016/11/01.



Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

- Etxebizitza berria eta erabilitakoa
- Etxebizitzen transakzioak
- Etxebizitzen alokairua
- Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Etxebizitza | Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Etxebizitzaren Erabilera Estatistika

Eusko Jaurlaritzak burutzen duen Etxebizitza Erabilera inguruko Estatistikaren helburua da EAEn lehenengo etxebizitza ez diren horien stocka zenbatzea eta ezaugarrien arabera bereiztea, dagoen etxebizitza huts kopurua ebaluatzeko eta informazioa emateko beren egoeraren eta ezaugarrien inguruan.

Bizkaian dago EAeko lehen etxebizitza ez direnen % 47,5a.

Argitaratutako azken datuen arabera, 2017an EAEn 1.043.590 etxebizitza daude. Bizkaian dago horien % 51,9a, % 32,5a Gipuzkoan eta gainerakoa Araban.



Lehen etxebizitza ez direnei dagokienez, Bizkaian daude gehienak, % 47,5a. Ondoren dator Gipuzkoa % 32,8arekin eta, azkenik, Araba % 19,7arekin.

Bilbo % 3,1a dira lehenak ez diren etxebizitzak

Bilbon lehen etxebizitza ez diren 5.031 etxebizitza daude. Hiru euskal hiriburuetatik kontzentrazio txikiena da hau, % 3,1a soilik udalerriaren guztiarekiko. Donostia da liderra rankingean % 7,3arekin eta jarraian Gasteiz, guztien % 4,9arekin.

Bizkaiko lehen etxebizitza ez direnek nagusiki 5 gela izaten dituzte, komun 1 eta, oro har, ez daukate ez berogailu ez garajerik. % 37,6ak 51 eta 74 m² arteko azalera erabilgarria dauka, eta % 37,3ak handiagoa, 75 eta 99 m² artekoa.

Etxebizitza-dentsitatea



Euskal A. E.ko Etxebizitzak lurraldeka eta motaren arabera. 2017

	Guztira	Lehenak	Lehenak ez direnak		
			Guztira	Denboraldikoak	Hutsik
Euskal A. E.	1.043.590	949.667	93.923	24.693	69.231
Araba	162.985	144.490	18.495	7.804	10.691
Bizkaia	541.178	496.543	44.635	10.521	34.114
Gipuzkoa	339.427	308.634	30.793	6.368	24.426

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Erabilera inguruko Inkesta. 2017.

Hiru hiriburuetatiko etxebizitzak eta osotasuna, motaren arabera. 2017

	Etxebizitzak	Lehenak	Lehenak ez direnak	
			Kopurua	%a etxebizitza guztiekiko
Guztira	370.450	353.109	17.341	4,7
Bilbo	162.643	157.612	5.031	3,1
Donostia	90.816	84.192	6.624	7,3
Gasteiz	116.991	111.304	5.687	4,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Erabilera inguruko Inkesta. 2017.



Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzen alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Higiezin eskaintza | Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean egiten da Higiezin Eskaintzaren Estatistika, eta honen helburua da identifikatzea ze bilakaera daukaten E.A.E.ko etxebizitza, garaje, trasteleku eta lokalen eskaintzak eta prezioek, eta baita beste esparru batzuk ere.

Bilbon jaitsi egin da etxebizitza berrien salneurria eta erabilitakoena igo.

2017an eskaintako etxebizitza berri libreen salneurria 3.578,7 €/m² izan da, % 1,3ko jaitsiera jasan du aurreko urtearen aldean. Batez besteko salneurria, guztira, 286,2 mila eurokoa da. Alderantziz, eta epe berdinean, bigarren eskuko etxebizitzen salneurria % 1,0 igo da urte artean, 2016an 3.271,5 €/m² izatetik 3.303,3 €/m² izatera igaro da. Erabilitako etxebizitzaren batez besteko salneurri osoa 309,3 mila euroraino heldu da.

Ariketa honen analisi sakonago bat eginda, Abando agertzen da hiribilduan erabilitako etxebizitzaren batez besteko salneurri altuenarekin, 4.096,0 €/m². Era berean, Abando da Bilboko zonalde bakarra gainditzen duena hiriaren batez bestekoa, hau da, 3.303,3 €/m² salneurria. Otxarkoagakoa da salneurri baxuena, 2.709,9 €/m² batez bestekoarekin.

Lurraldeka hartuta, etxebizitza berriaren salneurria hazi egin da Gipuzkoan eta EAE osoan (% 5,1 eta % 1,3, urte arteko hazkundea, hurrenkera honetan), eta Gipuzkoak dauka hiru lurraldeetako salneurri altuena, 3.390,8 €/m². Bizkaiak, 3.286,7 €/m² salneurriarekin, eta Arabak 2.492,6 €/m² salneurriarekin, % 1,4ko atzerapena erakusten dute kasu bietan aurreko urtearen aldean.

Erabilitako etxebizitzaren salneurriari dagokionez, jaitsi egin da hiru lurralde historikoetan eta EAEn, baina intentsitate ezberdinarekin. Gipuzkoak izan du atzerapen nabarmenena, % -4,2 urte artean, eta Bizkaiak txikiena, % -1,2. Kasu honetan Bizkaia da salneurri altuena daukan lurraldea (2.865,7 €/m²), eta gertutik jarraitzen diote Gipuzkoak eta Arabak, 2.756,9 €/m² eta 2.329,2 €/m² salneurriekin.

Etxebizitzaren batez besteko salneurria Bilbon (4. hiruhilekoa 2017)

	2016	2017	% 2017/16
Etxebizitza berria (€/m ²)	3.625,8	3.578,7	-1,3
Erabilitako etxebizitza (€/m ²)	3.271,5	3.303,3	1,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren Inkesta.

Salmentan dagoen etxebizitza berri librearen eta erabilitakoaren batez besteko salneurria (€/m²) esparru ezberdinetan (4. hiruhilekoa 2017)

	Etxebizitza berri libreak		Erabilitako etxebizitzak	
	Salneurria/ m ² (€)	Prezioa etxebizitzako (milaka €)	Salneurria/ m ² (€)	Prezioa etxebizitzako (milaka €)
EAE	3.222,0	258,7	2.758,1	237,4
Bizkaia	3.286,7	261,7	2.865,7	253,0
Araba	2.492,6	215,2	2.329,2	191,1
Gipuzkoa	3.309,1	264,7	2.756,9	224,7
Bilbo metropolitarr*	3.390,8	272,2	2.988,0	266,8
Bilbo	3.578,7	286,2	3.303,3	309,3
Deustu-San Inazio	3.578,7	-	3.302,6	275,3
Uribarri	-	-	2.881,0	229,6
Otxarkoaga	-	-	2.709,9	232,5
Boluet	-	321,5	2.874,4	229,6
Alde Zaharra	3.847,7	227,4	2.874,6	240,2
Abando	3.474,0	-	4.096,0	457,0
Errekalde	-	-	2.887,8	220,5
Basurtu	-	-	2.941,9	245,7

(-) Datu barik lagin eskasiagatik.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren Inkesta.



Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitza transakzioak

Etxebizitza alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Higiezin eskaintza | Etxebizitza transakzioak


Notario aurrean eskritura publikora igotako etxebizitza salerosketa datuetan oinarritzen da Sustapen Ministerioak egindako Higiezin Transakzioen Estatistika, eta estatistika honek azaltzen du % 1,4 igo dela salerosketan emandako etxebizitza kopuruan 2017. urtean zehar. Urte amaierarako 3.698 izan dira burututako eragiketak.

En 2017 las transacciones de vivienda ascienden un 1,4% en Bilbao.

2017an, etxebizitza libreek hartzen dute transakzio guztien % 97,9a, urte arteko % 4,3ko hazkundea izan da eragiketa kopuruan. Babestutako etxebizitzek 78 eragiketa soilik erregistratu dituzte, hau da, 98 erregistro gutxiago termino absolutuetan eta % 55,7 gutxiago aurreko urtean baino.

Eraikuntza berriko etxebizitzaren transakzioak jaitsi egin dira baita ere 2016. urtearen aldean, % -61,1 kasu honetan. Bigarren eskukoak kasuan, bilakaera positiboa da, eta 3.433 eragiketa erregistratu dira, aurreko urtean baino 468 gehiago eta urte arteko % 15,8ko hazkundea.

Etxebizitza transakzioak Bilbon





Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzen transakzioak

Etxebizitzen alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Higiezin eskaintza | Etxebizitzen alokairua

Higiezin Eskaintzaren Estatistikaren arabera, 2017. urtean etxebizitza baten batez besteko alokairua % 9,3 hazi da aurreko urtearekiko eta batez besteko errenta 1.052,2 eurotan kokatu da.

Bilbon etxebizitza baten batez besteko alokairua 1.052,2 €koa da hilabeteko.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka batez besteko alokairuaren kostu altuena. 1.028,0 €/hilabetean, 2016an baino % 18,3 gehiago. Bizkaiak jarraitzen du 955,5 €/hilabeteko alokairuarekin, % 7,4ko hazkundea izanda aurreko urtearen aldean. Arabak, rankingaren amaieran, % 8,3ko jaitsiera garrantzitsua erakutsi du.

2017an igo egin dira alokairuko errentak Alde Zaharrea, Abando eta Errekalden. Abandok dauka alokairuaren kostu altuena, 1.187,1 €/hilabeteko, eta urte arteko hazkunde esanguratsua (% 8,7) aurreko urtearen aldean. Alokairu baxuena Errekaldeko eremuari dagokio, 859,3 €koa da hilabetean.

Erregimen libreko etxebizitzen alokairuko errenta (€/hilabete) esparru ezberdinetan (4. hiruilekoa 2017)

	2016	2017	% 2017/16
EAE	879,9	944,3	7,3
Bizkaia	889,4	955,5	7,4
Araba	773,8	709,7	-8,3
Gipuzkoa	868,6	1.028,0	18,3
Bilbo metropolitarrak	924,8	980,0	6,0
Bilbo	962,6	1.052,2	9,3
Deustu-San Inazio	-	-	-
Uribarri	-	-	-
Otxarkoaga	-	-	-
Boluetak	-	-	-
Alde Zaharra	888,9	962,2	8,2
Abando	1.091,7	1.187,1	8,7
Errekalde	839,7	859,3	2,3
Basurtu	-	-	-

* Etxebizitza kolektiboen errentak jasotzen dira soilik.

(-) Datu barik lagin eskasiagatik.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren inguruko Inkesta.



Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa
 Etxebizitzen transakzioak
 Etxebizitzen alokairua
 Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Higiezin eskaintza | Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako datuen arabera, Bilbon eskaintzen diren lokal komertzial libreen salneurria 2.494,8 €/hilabeteko izateraino igo da, Autonomia Erkidegoan baino 632,4 € gehiago. Hirian alokairua 2.056,9 €-ra heldu da hilabeteen, hiru probintzien batez besteko kostua baino 801,4 € gehiago.

Bilbon garaje libreen batez besteko salmenta prezioa 36.567,6 eurokoa da 2017an, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago. Salneurri hau EAEko batez besteko prezioaren oso gaintetik dago (24.088,6 euro), eta hiru lurraldeetako bakoitzaren gaintetik.

Bere aldetik, trastelekuen salmenta librearen prezioa Bilbon 1.582,4 €/m²a da 2017an, altuagoa EAEkoa eta beste hiru lurraldeetako baino.

Garajeak EAEn, lurralde esparruka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2017

	Libreak		Babestuak	
	Salmenta Salneurria	Alokairua Errenta/hilabetero	Salmenta Salneurria	Alokairua Errenta/hilabetero
EAE	24.088,6	91,4	16.222,2	53,1
Bizkaia	26.027,4	86,1	14.761,8	29,9
Araba	15.216,6	71,7	-	-
Gipuzkoa	24.583,6	110,4	17.452,7	70,1
Bilbo	36.567,6	108,8	-	-

(-) Datu barik lagina eskasiagatik.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren inguruko Inkesta.

Lokal komertzialak EAEn, lurralde esparruka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2017

	Libreak	
	Salmenta Salneurria/m ² (€)	Alokairua Errenta/hilabetero
CAPV	1.862,4	1.280,0
Bizkaia	1.993,4	1.316,4
Araba	1.380,2	1.036,3
Gipuzkoa	2.033,6	1.413,7
Bilbao	2.494,8	2.056,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren inguruko Inkesta.

Trastelekuak EAEn, lurralde esparruka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2017

	Libreak		Babestuak	
	Salmenta Salneurria	Alokairua Errenta/hilabetero	Salmenta Salneurria	Alokairua Errenta/hilabetero
EAE	1.307,4	-	658,9	9,
Bizkaia	1.233,6	-	669,7	4,5
Araba	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.435,2	-	655,5	13,3
Bilbo	1.582,4	-	703,5	-

(-) Datu barik lagina eskasiagatik.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren inguruko Inkesta.

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa

2017

Garraioa eta ingurumena

Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa
Aire garraioa
Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua
Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Hiri eta metropoli barruko garraioa
Aire garraioa
Itsas garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua
Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Garraioa eta mugikortasuna

I Hiri eta metropoli barruko garraioa

Bilboko Udala lan garrantzitsu bat egiten ari da hiriko garraioa eta mugikortasuna hobetzen. Lan honen fruitu gisa jaso du 2017an "Irisgarritasun Diploma", Ilunion taldeak sustatutako aitortpena. Ilunion ONCEn enpresa-talde bat da, irisgarritasunaren aldeko lana saritzen duena maila fisikoan zein Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) mailan, eta baita ezintasunak dauzkaten pertsonen alde zuzenean egindako lana ere.

Bestalde, Bilbok lanean jarraitzen du bizikleta sustatzeko hiriko garraio bide jasangarri gisa, eta 2017 "Cities for Cyclists" Nazioarteko Sarean sartzea lortu du. Honen helburua sareko kide diren gainetik hiriekin jokabide egokiak partekatzea da eta ECFren baliabideak eta informazioa eskura izatea.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak argitaratutako datuen arabera, 2017. urtean zehar Bilboko garraio publikoak 116,5 milioi bidaiari batu ditu. Kopuru honetan kontutan hartu dira Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTranen egindako bidaiak. Hala, % 0,4ko igoera xumea eman da aurreko urtearen aldean.

Bilboko garraio publikoaren bidaiari kopurua apur bat hazi da.


2017an **Metro Bilbao** garraiatutako bidaiari kopurua % 1,2 hazi da, azken hiru urteetako joera negatiboa apurtuz. Urte osoan guztira 88,2 milioi ticket balioztapen erregistratu dira, aurreko urtean baino 1.066,8 mila bidaia gehiago termino absolutuetan.

Metro Bilbaoek 2017. urtean emandako aurrerapenaren arrazoietako batzuk izan dira, besteak beste, apirilean EuskoTrenen kudeatutako 3. Linea zabaldu izana, Urduliz geltokiaren lurperatzea eta biztanleen mugikortasunean emandako aldaketak. Arrazoi hauei batu behar zaie testuinguru ekonomikoan gutxika ematen ari den hobekuntza. Alde Zaharreko aldageltokia izan da geltoki erabiliena, 6,38 milioi ordainketekin, eta 2017. urteko ibilbide ohikoena Abando-Santutxu izan da.


Hiribilduko hiri garraio kolektiboko zerbitzuak, **Bilbobusek**, 25,4 milioi erabiltzaile garraiatu ditu 2017an, % 1,8ko murrizketa jasanda aurreko urtearen aldean, 469,7 mila erabiltzaile gutxiago. Martxoan izan da bidaiari kontzentrazio handiena izan duen hilabetea, zehazki 2.531.616.

Metroaren 3. Lineak Txurdinaga, Otxarkoaga eta Uribarri auzoei ematen die zerbitzua, eta Linea berri hau martxan ipini izanak eragin du hiriko autobusak gutxiago erabili izana. 441.000 bidaiari galdu dira Bilbobusen 03, 13 eta 38 lineetan. Egoera honek Bilbobusen hiriko lineak berrantolatzea behartu ditu, eta baita hiriko zenbait linearen maiztasunak eta ibilbideak berrantolatzea ere.

EuskoTran, tranbia zerbitzuak, joera negatiboa erakutsi du 2017. urtean, 3 milioi bidaietara heldu gabe (2.906.92), urte artean % 3,3ko jaitsiera. Eguneko batez bestekoa 8.237 erabiltzailekoa izan da.



116.039,70 bidaiak 2016 | 116.537,16 bidaiak 2017



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Aire garraioa

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Itsas garraioa

Garraioa eta mugikortasuna | Aire garraioa

Bilboko aireportuak 4.973.712 bidaiari batu ditu guztira 2017an. Datu honek aire garraioaren % 8,4ko hazkundera erakusten du urte arteko terminoetan, 385.373 bidaiari gehiago izatea eta ia bost milioi bidaiariko kopurua lortu dute.

% 8,4 hazi da bidaiari kopurua Bilboko aireportuan.

Nazioarteko hegaldietako bidaiari kopurua % 7,2 hazi da 2017. urtean, eta azken urteetako joera positiboarekin jarraitu du. Espainiar Estatu barruko trafikoa ere egonkortu egin da, % 9,5eko hazkunderarekin aurreko urtearen aldean.

Espainia barruko hegaldietako bidaiariek % 57,0ko pisu erlatiboa daukate hegaldi komertzial guztiekiko. Hazkunde xumea eduki du ehuneko honek 2016. urtearen aldean.

2017an 46.989 hegaldi bideratu ditu Loiuko Aireportuak, % 4,2ko hazkundera aurreko urtearekiko, 1.884 hegaldi gehiago. Hegaldi komertzialek, guztien % 94,6a, % 6,2ko igoera jasan dute, eta igoera hau eragin dute bai Espainia barruko trafikoa hazkundera (% 8,4, 1.951 bidaiari gehiago 2016an baino) eta baita, eragin gutxiagorekin, nazioarteko hegaldien igoerak (% 3,5, 656 hegaldi gehiago).

Vueling, Lufthansa, Iberia eta Aireuropa izan dira 2017. urtean bidaiari kopuru gehien eduki duten lau hegazkin konpainiak, eta haiek bildu dituzte bidaiari guztien % 34,3, % 10,1, % 9,9 eta % 9,1, hurrenez hurren. Lau konpainia hauen artean aireportuak urtean zehar daukan bidaiari fluxuaren % 63,4a batzen dute.


Bartzelonako El Prat eta Madrid Barajas Adolfo Suarez aireportuek bereganatzen dute Bilboko aireportua jatorri edo/eta helmuga daukaten eragiketa guztietan mugitzen den bidaiari kopuru osoaren % 30,2a.

Aire garraioa

	2016	2017	% 2017/16
Bidaiariak (guztira)	4.588.339	4.973.712	8,4
Hegaldi komertzialak	4.576.862	4.964.917	8,5
Espainiar Estatukoak	2.585.919	2.831.536	9,5
Nazioartekoak	1.990.943	2.133.381	7,2
Hegaldiak (guztira)	45.105	46.989	4,2
Hegaldi komertzialak	41.846	44.453	6,2
Espainia Estatukoak	23.220	25.171	8,4
Nazioartekoak	18.626	19.282	3,5
Merkantziak (Tn.)	2.974.297	1.956.389	-34,2

Iturria: Aena.

Bidaiari gehien jaso dituzten konpainiak



Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Garraioa eta mugikortasuna | Itsas garraioa

Bilboko Portuaren trafiko datuek, 2017 urte amaieran, % 7,0ko hazkundea erakusten dute urtean zehar, garraiatutako 34,3 milioi tonak gaudituta.

Portuko trafikoa 34 milioi tonara heldu da 2017an.

Merkantzien trafikoak hartzen ditu praktikoki eragiketa guztiak: 34,2 milioi tona, urte arteko % 7,0ko igoerarekin. Trafiko lokalak eta hornikuntzakoak, 111.692 tonarekin, guztien % 0,3a hartzen du soilik.

Ontziratutako likidoak (petrolio gordina, fuel olioia eta gasa, nagusiki) dira Portuko merkantzia trafikoaren % 57,7a, eta 19,8 milioi tonara heldu dira 2017an. Datu honek urtean zehar % 9,4 hazi dela erakusten du. Ontziratutako solidoak gutxiago igo dira, % 4,2, eta guztira 4,5 milioi tonako bolumenera heldu dira.

Salgai orokorren mugimenduen kasuan, bolumena 9,5ekoa izatetik 9,9 milioi tonakoa izatera pasa da, % 3,9ko murrizketa.

Azkenik, edukiontzien trafiko ere hazi egin da 2016. urtearen aldean, % 1,4, eta 604.870 TEU unitate kudeatu dira guztira.

Itsas garraioa

	2016	2017	% 2017/16
Portuko trafikoa (Tn.)	32.069.207	34.308.234	7,0
Merkantzien trafikoak	31.950.679	34.196.542	7,0
Ontziratutako likidoak	18.087.209	19.783.836	9,4
Ontziratutako solidoak	4.362.068	4.543.171	4,2
Salgai orokorrak	9.501.402	9.869.535	3,9
Trafiko lokala eta hornikuntza	118.528	111.692	-5,8
Edukiontzia (TEU unitateetan)	596.688	604.870	1,4

Iturria: Estatuko Portuak.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Ingurumena | Jasangarritasunaren aldeko apustua

Bilboko Udalak ingurumenaren jasangarritasuna sustatzearen aldeko apustua egiten du hirian, ekimen anitzak babestu eta sustatzen. 2017an zehar abiatutako proiektu esanguratsuenak aipatzen dira hemen:



Zaintza eta babesaren esparruan, hiriko ingurumenean orokorrean eta zehazki ondare berdearenean, Udaletxeak Akordio bat sinatu du Estatuko Parke eta Lorategi Publikoen Elkartearekin (AEPJP), Doña Casilda Iturrizar Parkea “Parkeakbizi” (“Vivir los parques”) parke eta lorategien plataforma digitalaren parte izan dadin. Doña Casilda parkeak, hala, aitorten berezi bat eskuratu du, izan ere, Bilboko altxor handienetako bat da, bost kontinenteetatik etorritako 71 zuhaitz espezie ezberdin dituena.



Interesa sortu duen beste proiektu bat hiriko gune ezberdinak ortu edo baratza urbano gisa egokitu izana da. Errekalden aurreko urtean esperientzia honekin lortutako arrakastaren ondoren, 2017an zabaldu egin da Otxarkoaga-Txurdinagara. Hala, Otxarkoaga Heziketa Zentroaren atzealdean kokatutako 56 lursail nekazaritzara bideratu dira hiriko ortu ekologiko gisa.



Mugikortasun urbano eta jasangarriaren Programak zein Elektrifikazio planak ezartzen dute, beste ekintza batzuen artean, autobus elektrikoaren flotaren hazkundera, eta baita bizikleten erabilera handitzea ere hiri barruko joan-etorrietan eta/edo elektrolindogien instalazioa. Guzti hau bideratuta dago 2030. urtean 2012ko mailarekiko % 50eko murrizketa lortzera, hiri eta metropoli barruko mugikortasunak eragindako CO₂ isurketetan. Hala dago ezarrita Bilboko Udalak eta Greenpeacek sinatutako akordioan..



Azkenik, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna ere nabarmentzeko moduko ekintza bat izan da. Egun honetan, eta “Pertsonak naturarekin lotu” lelopean, hiritarrei dei egiten zaie aire libreaz gozatu dezaten, natura inguruekin konektatu dezaten eta Lurra babestu dezaten gizateria osoaren etxe komuna den heinean. Hala, Mugikortasun eta Jasangarritasun Saitetik ekintzen dekalogo bat ipini da planetaren zaintzan aktiboki laguntzeko. Bestek beste, nabarmentzen dira uraren erabilera neurtua, oinez edo bizikletaz hiritik egindako paseoez gozatzeko edo plastikozko poltsak ez erabiltzea.

Hiri eta metropoli barruko garraioa
Aire garraioa
Itsas garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua
Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Ingurumena | Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokiak argitaratutako datuen arabera, Hiribilduko etxebizitzetako hondakin sorrerak 122.454 tonako bolumena eduki du guztira 2017. urtean. Horrela, etxeko hondakinen sorreraren per capita tasa urtean 354,8 kilokoa izatera heldu da, % 1,0 hazita 2016an erregistratutako datuaren aldean.

2017an etxeko hondakinak
% 1,0 hazi dira

Hondakinen bilketa nahasiak etxeko hondakinen bolumen osoaren % 78,9a ordezkatzeko du, eta jaitsi egin da 2016aren aldean (51 tona gutxiago, % -0,1). Gaikako bilketa ere jaitsi egin da jasotako 24.519 tonara heldu arte, urte arteko % -0,3ko murrizketa (67 tona gutxiago). Nabarmentzekoa da eman den % 18,5eko igoera tamaina handiko hondakinen bilketan, eta neurri apalagoan ontzien bilketan (% 4,2).

Gaikako bilketa

Europar 2020rako birziklapenaren esparruan ezarritako eskaerak betetzeko asmotan, Bilboko Udalak lehentasunen artean markatua dauka hiriko hondakinetan % 50eko birziklapen tasa lortzea. Horrela ulertu behar da azken urteetan egiten dabilen sentsibilizazio lana, lortu duena igarotzea 2006an birziklatutako hondakinak % 13,5a izateko % 27a izatera 2016 amaieran.

Lan lerro hau jarraituz, Bilbok 2017an 5. edukiontzia ezarri du (bio-hondakinen edukiontzi gisa ere ezaguna) 3 eta 4 barrutietan, eta baita 5. barrutiaren zati batean ere, materia organikoaren gaikako bilketarako. Edukiontzi hau udalerriri osotik zabaltzeko pausoa 2018. urterako aurreikusten da. Bestalde, edukiontzi zuriak ere bere tokia hartu du hiri osoan zehar, ehun-gaien bilketa erraztuz eta handituz. Eta azkenik, nabarmentzeko modukoa da ere bai ontzien eta beiraren birziklapena, emaitza onak izan dituen urte honetan.

2017an, udalerriko birziklapenaren batez bestekoa 14,55 kg.-koa da beira ontzietan biztanleko eta urteko. Horretarako udalerririak hiritarren esku ipini ditu 1.450 edukiontzi hori, 1.201 edukiontzi urdin eta 926 edukiontzi orlegi.

Hondakinen sorrera			
	2016	2017	% 2017/16
Etxean sorturiko hondakinak (Tn.)	121.239	122.454	1,0
Bilketa nahasia	96.654	96.603	-0,1
Gaikako bilketa	24.586	24.519	-0,3
Papera – kartoia	11.876	11.225	-5,5
Beira	6.746	6.917	2,5
Tamaina handikoak	1.138	1.349	18,5
Ontziak	4.826	5.028	4,2
Etxeko hondakinak (kg./bizt./urte)	351,3	354,8	1,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

